

Telesforo Monzon

**HAZPARNEKO
ANDEREA**

KOMEDIA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria:

<http://www.armiarma.com/monzon/antz05.htm>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=306>

NOR ZER

GEAXINE: «Hazparneko Anderea», 50 urte.

PANPILLI: Geaxine-n senarra. Ameriketako aberastua.
55 urte.

MAYI: Heien alaba bakarra. 20 urte.

MAIENA: Panpilli-ren arreba mutxurdina. Etxean bizi.

DOMINIXE: Panpilli-ren anaia. Zapatari.

BEÑAT: Mayi-ren senargaia. Ezpeletako mediku gaztea.

JAUN MARKISA: Xagu erraiten dioten gizon zirtzila. 35 urte.

JAUN ERRETORA: Umore oneko gizon xahar saildua.

MOSEÑORE: Erroma-n bizi, markisaren laguna. Apezpinpirina.

IÑAXIO: Golf-irakaslea. 50 urte.

GANIX: Zakur-zaina.

PETTAN: Turutalaria.

Ekintza Hazparne-n, mende hunen hastean...

AINTZIN-SOLAS

Duela bospasei urte, uda-gau eder batez, Donibane-Lohitzun'go pilota-toki zabalean Les Femmes Savantes ikusi ondotik, asmo hau bururatu zitzaion komedi hunen egileari: Molière-n antzerki pulit hura euskerarat itzuli.

Liburuska eskuratu eta asi omen zen lanean.

Baiña horra zer gertatu: Molière-n jendekiok Hazparne-ko plazarat jautsi ordu, eskapatu zitzaizkion egileari eskutik. Eta ez bakarrik izenez eta mintzairaz aldatu. Izatez ere arras berritu ziren Frantzia-tik heldu jendeki hoiek euskal aizea hartu zuten puntutik. Bertako seme-alaba batzu ere urbildu zitzaizkioten. Eta noski: komedi berri bar sortu zen, ez batere Molière-k asmatua!

Idazle haundi harek barkatuko al gaitu. Zuek ere, jaun andreak, otoi...

Eta hola, zabaldu bitez oihalak. Eta asi bedi: Arroke-riak eta haundi-nahiak euskeldunari joka arazi dion:

LEHEN ZATIA

Hazparne-n gare, gure mendeko lehen urteetan. Etxebarne aberatsa. Indianu-etxea. Oihalak zabaltzean, Mayi loreak ematen ari. Izeba Maiena, eskuetan otoitz-liburua, jarririk dago.

I. AGERRALDIA

Maiena eta Mayi

MAIENA:

Zer? Neskaxa izateak etzaitu betetzen?
«Neska» izen horrek ez aski xoratzen?
Ta ezkontza duzu beti gogoetan
Atsegin bilduaz... basakeri hoietan?

MAYI:

Bai Mattantta

MAIENA:

«Bai» horrek ematen dit mina

Nun sortua zare eta nork egina?

MAYI:

Zer du ba ezkontzak?

MAIENA:

Otoi!! Ixil zaite!

Nahasiko nauzu eta eginen kalte

MAYI:

Ezkontza...

MAIENA:

Ixilik! Ezkontza hitz hori

Ez duzu ba ikusten zoin den ahalgegarri?

Edo... behar zaizu dena garbi erran?

MAYI:

Nik gauza pullitak nituen gogoan.

MAIENA:

Hobe! gizonetan ez eman oroitzta

Neskak behar luke gogoan... otoitza

Gizonen berriak? Neri behar galde?

Nik nahi izan banu, gaur ama nindake.

MAYI:

Zertako gelditu zinen ba mutxurdin?

MAIENA:

Garbia izateko Zeruak nau egin.

MAYI:

Ni ez ba.

MAIENA:

«Ni ez ba!» Har zazu gizona...

MAYI:

Ta ze ba! Nik hortan nuke zoriona.

MAIENA:

Gizona! Emazteen etsai haundiena,
Pekatu egiteko bakarrik on dena.

MAYI:

Jesus, gure Jauna, gizona zenuen.

MAIENA:

Ez zazula aipatu holakorik hemen!
Aski duzu jakin gauza bat iloba:
Garbitasun legez mutxurdi nagola
Ama nindakela, nahi izan banuen.
Gizonak, inguru, dantzan bai nituen,
Baiña garbirako Zeruak nau egin,
Ta hargatik, iloba, gaur nauzu mutxurdi.
Mutilek... hor konpon, nahi badute ezkondu.
Gizonak beharba emazte-hartze on du,
Baiña neskatxak ez beza gizonik har.

MAYI:

Ta gizona norekin esposatu behar?

MAIENA:

Iloba! Ez hemen gizonik aipatu.
Ez banauzu nahi pekatuan sartu.

MAYI:

Nik ezagutzen dut midiku gazte bat...

MAIENA:

Aski, Mayi, aski! Aski da neretzat!!

MAYI:

Eta hura urbil jartzen zaitalarik,
Ez ditut munduan deuseren eskasik.
Harek ekartzen dit bururat etxea,
Ta golpez, besotan ager zait... semea;
Hartan hartzen badut nere xoratzea,
Ez al dut betetzen Zeruko legea?

MAIENA:

Ixilik! Nahikoa! Otoitz egin zagun,
iloba, burua galdu ez dezagun.

(Otoitzean ematen da)

II. AGERRALDIA

Lehengoak eta Mikolasa

MIKOLASA:

Haurra! Mayi! Mayi! Beñat duzu hemen!

MAYI:

Beñat? Erraiozu sartzeko lehenbaitlehen!

MAIENA:

Ez! Begola atean! Uko deabruari!

MIKOLASA:

Zer bear dut egin? Erran neri garbi!

MAIENA:

Ez dedila sartu! Dagoela atean!

MIKOLASA:

Ni ez naiz ariko Mayi-ren kaltean!

MAIENA:

Gora gure Jesus! Uko deabruari!

Kanporat gizonak! Norat zoaz Mayi?

MAYI: *(Bere baitan)*

Egin-ahalak oro behar ditut egin.

Nere Beñat ongi hartua izan dedin.

MAIENA: *(Bere baitan)*

Zertarat heldu da hunat gizon hori...?

Orai ere nere ondotik ibilki...?

MIKOLASA: *(Bere baitan)*

Egon adi erne, gaixo Mikolasa,

Etxe huntan noiznahi sortzen baita xaltxa.

(Mayi-ri belarrirat)

Ez zaitela kexa, zaude deskantsuan,
Beñat sartuko dut behar den orduan.

(Badoa)

III. AGERRALDIA

Maiena eta Mayi

MAIENA:

Etxean dituzu bai aita, bai ama.
Zure aitak ni nau arreba bakarra.
Eta naia bai dut... hola... zozoxkoa
Munduan ni nauzu haren ordekoa.

MAYI:

Aita zozoxkoa, nik?

MAIENA:

Zozoa ez da, ez...
Aberastu baita lana franko egiñez;
Bainan... ama duzu etxean gizona,

Galtzak amak ditu eta aitak... gona.
Ongi baitakizu zaitudala maite,
Beharko dituzu nere erranak bete.
Beraz... izan prestu, garbi eta apala.

MAYI:

Nik maitasuna dut kantari bakarra.

MAIENA:

Ixilik! Eta orai bakarrik bai gaude,
Entzun-iazu, Mayi, hitz bat erran gabe:

(Ixilka)

Beñat gazte hori, atean dagona
Erraiten dutenez... duzu... mutiko ona...

MAYI:

Beñat? Mutiko horrek ez dizu berdiñik
Urbiltzen zaitala...

MAIENA:

Aski! Zaude ixilik!
Eta... hobe duzu ez ametsik egin
Bertze norbaitentzat... heldu baita berdin!

MAYI:

Bertze norbaitentzat Beñat hunat heldu?

MAIENA:

Ze ba! Maitasunak mugarik ezpaitu...

MIKOLASA: *(Atetik)*

Satu zaite, sartu, gure jaun gaztea.

MAIENA: *(Bere baitan)*

Ze mutiko pulit, goxo ta maitea!

IV. AGERRALDIA

Lehengoak eta Beñat

BEÑAT: *(Erran kantuz)*

Andereak! Hemen duzue

Ezpeletako semea,

Hazparnerat jina nauzue

Amodioaz betea

(soiñulariak)

Ezpeleta-n ni bai nauzue

Beñat midiku gaztea

Zaldi gaiñean ekar dizuet

Maitearentzat lorea

(soiñulariak)

(Mayi-ri lorea emanaz)

Gure baratzean argiastearekin

Neronek bildua.

MAYI:

Hunek ez du berdin!

BEÑAT:

Emaiozu muxu eta usain egin

MAYI:

Zure baratzetik heldu den lorea
Hogei izar baino neretzat hobea
Hementxe kolkoan...

BEÑAT:

Ezarriko dut nik.

(Ezartzen dio)

MAYI: *(Beharrira)*

Izeba so dugu, mintza zaite ixilik.

MAIENA: *(Gaitzitu)*

Ezpeleta-n, noski, ez da eskolarik?

MAYI: *(Ixilka)*

Ezpaitiozu egin sartzean agurrik.

BEÑAT:

Oi! Oi! Otoi! Barka, andere gaixoa...
Badakizu-ta... zer den... amodioa.

MAIENA:

Estimatusa dut zure ahalkatzea.
Maitasuna duzu ausartze gabea,
Baiñan, otoi, Beñat ez hola behatu

Zure aragiak ez dezan su-hartu.

BEÑAT:

Baiñan, anderea...

MAIENA:

Ez! Urrundu zaite,
Etzaitela mintza... pittat oztu arte

BEÑAT:

Entzun zazu beden...

MAIENA:

Ez, ez dut entzunen

BEÑAT:

Erran behar dizut...

MAIENA:

Zoaz, zoaz lehenbaitlehen!
Estimatzen dizut borondate ona,
Baiña neretako... deus ez da gizona.

BEÑAT:

Entzun anderea...

MAIENA:

Ez, ta ez, eta ez!
Hoino ez bederen...! Beharba egun batez...

(Badoa)

V. AGERRALDIA

Beñat eta Mayi

BEÑAT:

Zer du atso horrek? Nun dauka burua?

MAYI:

Gizonek diote nahastekatua! (*Biak irriz*)
Ahantzi itzagun hoiek eta jarri gaiten,
Zerua neretzat orai baita hemen (*jartzen*)
Noiz egon gindazke biok beti hola (*dire*)
Zure eskua ukituz pentsatzen nagola,
Ez orai bezela, atearen beldur,
Elgarri begira deskantsuan, segur...

BEÑAT:

Zuretako dut prest etxea Ezpeleta-n:
Herri garbi, airos alaia benetan.

MAYI:

Kasu! Kasu Beñat! Ni zurekin... nunahi!
Bainan. Ezpeleta noiztik herri alai?
Ezpeleta duzu... herri ttipiñoa!
Hazpandar batentzat deusik ez, gaixoa!!

Zuen Ezzzzpeleta? Dena zaldi-tratu!

BEÑAT:

Ta zuen Hhhhazparne? Apezen espantu?

MAYI:

Baiñan ezkontzeko, neskatxa hazpandarra!

BEÑAT:

Ta zuk Ezpeleta-n atxeman senarra!!

MAYI:

Aski! Gora Hazparne!

BEÑAT:

Ez! Gora Ezpeleta!

MAYI:

Ago ixilik, mutil!

BEÑAT:

Zaude ixilik, neska!

(soiñulariak)

(Biok egon bitez ixtan bat ixilik, asarre.

Gero berriz:)

BEÑAT:

Mayi... hoiek utzi-ta... goaz gurera

Gaur jina ninduzun

MAYI:

Zertara, maitea?

BEÑAT:

Zure esku pullita behar diot galdatu Aitari

MAYI:

Aitari? Agintzen ezpaitu!

BEÑAT:

Nori ba?

MAYI:

Amari, Baiña kasu! Kasu!

Nausitu bai zaio arras haundi-nahia

Ta neretzat amets...

BEÑAT:

Nor?

MAYI:

Errege-gaia

Beraz... erregerik ezpaita inguruan

Orai ... markisa du neretzat buruan!

BEÑAT:

Markisa? Zein markis?

MAYI:

Xato-koa

BEÑAT:

Xagu?

Gaskoin zirtzil hori?

MAYI:

Buruan hura du
Beraz, entzun Beñat: Ni maite banauzu,
Andikien gisa joka behar duzu.
Agertzen bazera markisaren berdin,
Eginen diozu amari atsegin.

BEÑAT: (*Sutan*)

Zer galde dautazu? Xagu-bilakatze?
Eta zu, zu Mayi, gaznatzat nik hartze?
Musten nauzu ni, agoa ximurtuz,
Begiak zerura, gerria makurtuz,
Sudurrakin mintzo erdi karrazika,
Atso zahar deneri erreberentzika?
Naizen bezala naiz: Beti ni, neroni,
Ez eder, ez itzus, ez txiki, ez haundi,
Midikua nauzu ta pilotaria.
Ezpeletarra naiz. Euskeldun garbia;
Izen zaharra dut, aitarengandiko
Odolak emana betitik betiko.
Ta orai nahi nauzu, erdi kokoriko
Xagu bati beha eman belauniko?
Mintza zaite! Mintza! Zer zare? Nigarrez?
Mayi! Jo nazazu, baiña nigarrik ez.

MAYI:

Beti hola gare, iguzki ta laiño...
Ixo! Bada norbeit...

BEÑAT:

Nor?

MAYI:

Zapataria!

BEÑAT:

Zure osaba beraz? Nere adiskidea?
Berak errana dit: Ago trankil, Beñat.
Mayi, nere iloba, nik diat... hiretzat!
Pentsatuko diat zernahi asmakeri,
Ta azkenik... hiretzat izanen duk Mayi!

MAYI:

Zer asmatuko du?

BEÑAT:

Ez dakit, gaixoa!

MAYI:

Bera da?

BEÑAT:

Nik uste... Muxu bat!

MAYI:

Banoa...

(Gaki da)

VI. AGERRALDIA

Beñat eta Maiena

MAIENA: *(Bere baitan)*

Bera da. Hemen da maitale nerea...

Zer egin behar dut, Jaungoiko maitea!

(Beñat-i urbiltzen zaio)

Gazte, behar dizut «barkatzeko» erran,

Minik haundiena nik bai dizut eman

Bainan horra zer den: ez giñen bakarrik

Eta amodioak ez nahi lekukorik.

BEÑAT:

Baina anderea...

MAIENA:

Xo! Etzaitela mintza!

Suak behar luke keaz egin hitza,

Begiak, begiak dire mintzatzeko

Ezpainak atxikiz... bertze zerbaiteko.

BEÑAT:

Ni etorria naiz...

MAIENA:

Ba dakit zertara:

Nere esku galdetu nahirik, ez da ala?

BEÑAT:

Ez ta ez, andrea! Nik Mayi dut maite!!

MAIENA:

Beti umore on! Beñat kontent zaite!

Errana badizut egun, golpez, ezetz

Etzaitela hilundu. Beharba egun batez...

Esperantza duzu bizitzaren gatza

Etzazula, Beñat, galdu esperantza

Egiozu kasu nere azken hitzari:

Hoino gazte gera... Utzi geroari! (*Badoa*)

VII. AGERRALDIA

Beñat bakarrik

BEÑAT:

Deabru zikina! Nun sartua naiz ni?

Etxe huntan denak erroak iduri!

Amak haundi-nahia, atsoak ar-gose

Zer? Denak burutik eginak dagoze?
O bai, gaizo Mayi! Erroen artetik
Aterako zaitut goxoki ta ixilik,
Gauaz, nere zaldi beltzaren gainean
Eremanen zaitut galopaka aidean...
Geroa etor bedi eta agertu beza
Nor izanen nausi: Ni ala Markisa

(Badoa)
(Soiñulariak)

VIII. AGERRALDIA

Panpilli eta Dominixe

PANPILLI:

Sar hadi anaia. Ator. Sartu hadi
Ta egon deskantsuan. Ez ahalgetu. Jarri

DOMINIXE:

Lanetik etorri nauk nindukan bezala

PANPILLI:

Anaiaren etxerat nola jinen haiz ba?

DOMINIXE:

Andrea etxean duk?

PANPILLI:

Utzakala andrea!

Etxe huntan, entzun duk ni bai nauk jabea

DOMINIXE:

Hola balitz!

PANPILLI:

Zer diok?

DOMINIXE:

Trankil nindakela

Bainan... nahi ba duk entzun, hau jakin zak
garbi:

Hire andrearentzat, ni nauk... ahalgegarri

Hura Madama duk ta ni... zapatari

PANPILLI:

Ez gaituk biok anai eta odolez berdin?

DOMINIXE:

Bai baiña... gaur Hazparne-n: hi jaun ta ni
Mattin

PANPILLI:

Naikoa lan egiñik aberastu nikan

DOMINIXE:

Ni ere ez nauk munduan beti ibili dantzan

PANPILLI:

Ameriketara joan, Hazparne-rat itzul...

DOMINIXE:

Orai holako etxerik ez duk hemen iñun.

PANPILLI:

Eta alare, anaia, ez nauk ongi bizi:

Jauregi haundi huntan kausitzen nauk... bitzi

Behi bat ere ez diat...

DOMINIXE:

Ze gauza tristia!

PANPILLI:

Behia baiño nahiago nitek ba... zerria

DOMINIXE:

Nola? Zerririk ez duk? Hori mixeria!

Zerririk gabe, anaia, hilun duk bizia.

PANPILLI:

Ollorik ere ez diat. Baratzerik ere ez...

Holaxe bizi gaituk, aberats izenez.

DOMINIXE:

Nik ez diat ba sosik, Panpi, hik bezala,

Baiñan etxea diat ollaskoz betea,

Behia ondoan diat, astoa ez urrun,

Baratze pulita ere, andrearen lagun,

Handik biltzen diagu jateko guzia

PANPILLI:

Ni aberatsa omen nauk!

DOMINIXE:

Ni zapataria.

PANPILLI:

Begira nazak ongi.

DOMINIXE:

Jesus! Ze jauntzia!
Dirdirazko zapatak...

PANPILLI:

Beti maingu nabil.

DOMINIXE:

Zapata hoi en barne odola ezpaitabil.

PANPILLI:

Erropetan preso nauk. Uki-dak lepoa...

DOMINIXE:

Jesus! Eta bizi haiz? Nola etzaiz itoa?

PANPILLI:

Andrearen nahia duk: aberats generala
Ta jauntzi behar omen nauk markisak bezala.
Ez duk hori tzarrena. Ba-kik gure Mayi?
Ama sutan zebillek hura ezkondu nahi

DOMINIXE:

Ta norekin?

PANPILLI:

Ezetz asma! Ezpaituk errexa.

DOMINIXE:

Nor ote du buruan?

PANPILLI:

Xato-ko markisa!

DOMINIXE:

Xagu? Gosez bizi den petral, zirtzil hori?

Ago ixilik, gizona! Nun dituk hik galtzak?

Andreari kendu-ta, soiñean jantzi itzak!

Mayi-rentzat nik diat egiz senar ona

Ez markis'ta ez xagu, entzun duk: gizona!

PANPILLI:

Erran! Erran aguro! Nor duk ba?

DOMINIXE:

Ez! Pentsa!

Ezpeleta-ko Beñat!

PANPILLI:

Hori!!! Nere ametsa!!!

IX. AGERRALDIA

Lehengoak eta Maiena

MAIENA:

Barkatu, anai maiteak. Gezurretan zaizte.
Ez nizuen erran nahi geroago arte;
Baiña so bai nengoen zuen kalakari,
Egia, egi utsa, zor dizuet garbi.
Mendiz-mendi, goizero heldu den gaztea
Ezpeleta-tik zaldiz, eskuan lorea,
Ez da Mayi-rengatik etortzen hunera...

DOMINIXE:

Nor luke ba gogoan? Jarrai-zu aurrera...

MAIENA:

Zuek hola zerate: zerbeit nahi ta sinets,
Egiak egi dire eta ametsak amets.

DOMINIXE:

Norengatik dator ba? Mintza zaite garbi

MAIENA:

Ni!

DOMINIXE:

Ai ama! Ai amatxo! Irriz itoko naiz!

(Biak irriz lehertzen)

PANPILLI:

Holako farraldia ez diat egin maiz.

MAIENA: *(Sutan)*

Egin irri, egin! Horrek ematen osasun.

DOMINIXE:

Nola nahi duzu farre egin ez dezagun?

PANPILLI:

Gaztetarik oihuka: «Uko gizoneri»!!

Nola nahi duzu farre egin ez dezagun?

(Irriz eta farrez)

MAIENA:

Gezurra! Ni neska naiz, lehen bezin garbia

DOMINIXE:

Beharko!

PANPILLI:

Ze erremedio, arreba maitia!!!

MAIENA:

Egin irri, baiña entzun: Hi haiz irrigarri

Andre galtzadun baten gixon-emaxteki!

X. AGERRALDIA

Lehengoak, Maiena ezik

PANPILLI:

Emazteki ustela. Bota dik berea,
Otoitzean bizi den elizakumea!

DOMINIXE:

Hola izaten duk beti. Beha zak sugea:
Gorputza garbia dik, mihia dik luzea.
Agur anaia. Banatxok

PANPILLI:

Ez. Entzun zak ongi.
Ezagutu behar diat hire mutiko hori,
Joan hadi bere billa eta erraiok hola:
Semetzat altxatzeko xoratzen nagola.

DOMINIXE:

Gora hi, nere anaia! Ago hemen entzun duk?
Atxemanen diat nik. Ago hemen gaituk

(Badoa)
(Soiñulariak)

XI. AGERRALDIA

*Panpilli eta Mikolasa. Panpilli zapatak
kentzen ari.*

MIKOLASA: Nausia! (Nigarrez)

PANPILLI: Zer da, Mikolasa?

MIKOLASA: Agur nausia, joaki naiz.

PANPILLI: Norat zoaz, Mikolasa?

MIKOLASA: Neronek ere ba al dakit norat, nausia?
Etxeko-andreak astian igorria nau etxetik
kanpo.

PANPILLI: Igorri? Zer egin diozu ba?

MIKOLASA: Hori berak erran beharko. Ni ez naiz salata-
ria. Hogeita-hamar urte eginak ditut etxe hun-
tan. Ameriketa-ko toki nigargarri heietarat ere
eremana ninduzuten zuekin. Etxekoa nintzela
iduritu eta... horra!

PANPILLI: Nun ditugu espartinak, Mikolasa?

MIKOLASA: Eskuan, nausia. Orai ere, pentsatua bai nuen beharko zituzula. Beroarekin, hanpatzen baitzaizkizu zuri oinak.

PANPILLI: Infernuan jendea zapatetan ibiliko zaizu nik uste, Mikolasa.

MIKOLASA: Espartiñetan ere, ba dut nik munduan nahiko infernu, nausia. Etxeari, zueri, Mayi haur gaixo horri nik hartua nion amodioarekin! Amaresen sabeletik, nere besoetarat jautsia bai zengure Mayi. Eta nik alabatzat hartu. Horra nere pekatua.

PANPILLI: Etzaitela hola asi, Mikolasa. Ba dakizu-eta, ni ere nigar-merke naizela. Ez gaitzela hemen biok asi nigarrez. Joan sukalderat. Antolatuko ditugu puska autsiak, bertze ameika aldiz bezela.

MIKOLASA: Orai ez, nausia. Hunek ez du antolamendurik.

PANPILLI: Eufffi!! Espartiñak eman-eta, iduri zait golpez Paradisuan sartua naizela.

MIKOLASA: Agur beraz, nausia (*Nigarrez*).

PANPILLI: Agur? Ze agur? Hemen ez da agurrik. Ez ahantzi, Mikolasa, etxe huntan nik agintzen dudala. Entzun duzu? Nik! Beraz, xukatu itzazu

begi hоек zure dabantalaz. Eta zoaz sukalderat trankil. Har zazu gogoan hau: Teilatu hunen azpian, nagusi bakar bat dela. Eta hura, begien aintzinean duzuna.

*(Geaxine, bertzeak ohartu gabe, sartua zen. Eta azken hitz hauek entzunak ditu.
Haren begiak!)*

XII. AGERRALDIA

Lehengoak eta Geaxine

GEAXINE: Nor dela hemen manatzaile bakarra?

PANPILLI: *(Kexu eta goxoki)* Zu, Geaxine, zu... Hargatik erraiten nion Mikolasa-ri... Sartzen ikusia bai zinduen... eta nik ere maite bai dut... hola tarteka... irri pittat egitea...

GEAXINE: Nun dituzu zapatak?

PANPILLI: Aulki horren azpian ezarriak ditut... freskatzten.

GEAXINE: Zenbat aldiz erran behar zaizu zuri gauza bera? Zer pentsatu behar dute, norbeit etorri eta arrapatzen ba zaizu hola espartañetan? Gero, erranen dute herrian: orai ere sumatzen zaigula guri ongarrri-usaina. Eta zu, Mikolasa, zer ari zera hemen? Egun bertan hilundu baino lehen, hartua izanen duzu etxeko bidea. Hola ikasiko duzu: gu bezelakoeri nola behar zaioten mintzatu.

PANPILLI: Zer egin du ba?

GEAXINE: Zer egin? Nere kontra emana zare, orai ere?

PANPILLI: Ez horixe! Zure manatuak errespetarazteko nago ni hemen. (*Mikolasa-ri bortizki:*) Zer egin duzu zuk, Mikolasa? Erran! Aitor zazu! Ni asaretzen naizelarik, ba dakizu nolakoa naizen!

GEAXINE: Hola, hola!!

PANPILLI: Hiluntzirako erran dizue? Ez andrea! Berea-la joanen zera!

GEAXINE: Ederki Panpilli, hola, hola!

PANPILLI: Gorde nere begietarik! Gorde! Alde! Urrundu! Fuera!

MIKOLASA: (*Nigarrez*) Bainan zer egin dut nik?

PANPILLI: Hori! Ez bai zekiñat... Zer egin du?

GEAXINE: Zer egin? Mayi gure alabari ez dio ba, nere aintzinean hol-hola erran: Mayi?

PANPILLI: Nola?

GEAXINE: Bai jauna. Nere aintzinean!

MIKOLASA: Nola erran behar nion ba?

GEAXINE: Gu bezalakoan alaberi erraiten zaien bezela: Mamasel.

MIKOLASA: (*Nigarrez*) Mamasel? Ez andrea! Hori ez eskatu neri! Zergatik egin behar diot holako haur pulitari afrontua? Harek ez dit neri sekulan deus egin, nik orai hari mamasei erraiteko. Haur gaixoa! Mamasel norbaiti nahi ba diozute erran, erran neri. Neri berdin zait zernahi entzunik ere: mamasel edo xaguzahar. Baina Mayi-ri ez! Gure haurrari ez! Horrek ezpaitu merezi!

GEAXINE: Basakumea! Manatu-iozu nere begietarik urruntzeko!

PANPILLI: (*Oihuka*) Joan hemendik! Joan hemendik! (*Gero belarrirat*) Zoaz, zoaz... Antolatuko ditut nik bazterrak, ez kexa... Hemen, Mikolasa, nik agintzen dut! Entzun duzu? Nik!

MIKOLASA: (*Nigarrez*) Bai nausia, bai, bixtan da... (*Eta badoa*).

XIII. AGERRALDIA

Geaxine eta Panpilli

GEAXINE:

Orai bakarrik gare. Beraz, mintza gaiten.
Mikolasa doala etxetik lehenbaitlehen
Ta betor ordezkoa, Paris-etik hobe,
Erraiten ikasia Mamasel ta mexie.

PANPILLI:

Baina, andrea, otoi, norat goaz hola?
Gezuraren lepotik igo nahi gora?
Menditik heldu gare, euskeldunak gera...

GEAXINE:

Aski! Zer nahi duzu? Erran! Zertan zera?
Maite ba duzu, zinez, gure alaba Mayi,
Zergatik ez duzu hura gorago ikus nahi?

PANPILLI:

Gorago hori zer den behar nuke jakin.

GEAXINE:

Etzaidazula neri predikurik egin!
Eta Mayi alaba bai dizut aipatu,

Nere asmoak entzun ta gogoan hartu:
Mayi alabarentzat, badut senargaia.

PANPILLI:

Ni ere... hemen ninduzun... hortaz mintza
nahia.

GEAXINE:

Nik hautatua duzu, eskola haundikoa,
Egiazko jaun haundi, legun ta goxoa.

PANPILLI:

Zuretzat markisa ta niretzat... xagua.

GEAXINE: (*Sutan*)

Nola? Zer entzun dute nere belarriak
Nork asmatu du hori? Erran ha!

PANPILLI:

Herriak!

GEAXINE:

Asmatuko nuke nik horren egilea!
Neri eman dautanak Hazparneko Andrea!
Baina jarri dionak markisari Xagu!
Bere bekaizkeriaz naikoa ez ba lu,
Gure jauregi huntan behar luke sartu,
Ta ikusi gure jantzi ta gure edergailu...!
Ta buruan baduzu norbeit norbeitentzat
Nik beste norbeit hauta baitiot senartzat

Nunbaiteko... norbeitek argi jakin beza
Bertze norbeit ba dela ta hura markisa

(Badoa)
(Soiñulariak)

XIV. AGERRALDIA

Panpilli eta Dominixe

DOMINIXE: Panpilli! Panpilli!

PANPILLI: Zer duk? Zer duk?

DOMINIXE: Hemen duk, hemen duk!

PANPILLI: Nor? Andrea berriz? Nun da?

DOMINIXE: Ez gizona, ez! Seme-gaia! Plazan arrapatu dizkiat bi gazteak. Elgarrekin xoratuak zegozen, hantxet, egonean egon elgarri begira. Oihu egin diet: «Gazteak! Etorri nerekin laisterka, aitaren baimena hartzerat! Hor dizkiat biak, ate-xokotan. Ago. Sarraraziko dizkiat bereala. *(Abiatzen da.)*

PANPILLI: Ez, ez! Orai ez! Orai ez diat astirik! Atera zak etxetik mutiko hori!

DOMINIXE: Etxetik ateratu? Ez diok ba hihaurek astian, nere bitartez, alabaren eskua agindu?

PANPILLI: Nik?... Atera zakala mutiko hori etxetik! Entzun duk? Hauek ez dituk tenoreak...

DOMINIXE: Ago deskantsuan, gizona! Andrea ez duk etxean! Hi utzi-eta, kusian joana duk. Baietz! Ez dukala etxean!

PANPILLI: Etxean duk bai! Usainean ezagutzen diat nik.

DOMINIXE: Orai ez duk ba ezagutu. Bere zaldi ederrekin abiatua duk. Xilintxak ez dituk aditu?

PANPILLI: Seguru haiz?

DOMINIXE: Baietz gizona!

PANPILLI: Ba! Andrea etxean izan ala ez izan... nik uste ba diat zerbait egin behar diatala... Nun dituk gazte hoiek gordeta?

DOMINIXE: Erran diat lehen ere! Hortxet! Ago... (*Abiatzen da billa*) Gazteak! Aintzina, aintzina!!

XV. AGERRALDIA

Lehengoak eta bi gazteak

BEÑAT: Arratsalde on, jauna!

PANPILLI: Hori! Aitaren berdin, berdin, berdina! Hire aita eta biok anaiak bezela izan gaituk beti. Beraz, ba dakik: Aita galdua duk-eta orai hemen duk haren ordezkoa. Ator nere besoetara, Beñat!

MAYI: Millesker, aitatxo! Munduan ez da, egun, ni baino alaba zoriontsuagorik!

BEÑAT: Millesker, jauna. Amestu nezakean eskeintzarik ederrena egin didazu. Ni ez naiz, zuek bezala, aberats hoetakoa, baina...

MAYI: Otoi, Beñat! Ahalgetuko nauzu.

PANPILLI: Nola? Aberatsa ez haizela, hi? Ez daramak inguruko izen zahar eta garbienetariko bat?

DOMINIXE: Ederki, Panpilli, ederki.

PANPILLI: Etzaiz sendagile eta etxe-jabea?

DOMINIXE: Hola, Panpilli, hola!

PANPILLI: Etzaiz mutiko zalu, azkar eta eskolatua? Eta hoiiek baino geiago balio duena: bihotzez eta eskuz garbia?

MAYI: (*Irriz*) Hori ez aita, eskuak ez ditu beti garbiak ibiltzen.

DOMINIXE: Pilotaria dela erran nahi dik.

PANPILLI: Ba zekiat! Eta nik hori estimatzen geiena!

DOMINIXE: Hau ere, pilotaria izan bai duk.

PANPILLI: Ze ba! Pilota duk... nola erranen diat nik... emaztekoa bezala. Pilotaria eta emazteari, bieri behar zaie gogor egin. Sekulan ez barka! Jo beti! Behetik heldu zaikala? Jo!! Goitik zetorkikala? Jo!!! Eta bazterretik-edo heldu bazaik... jo!! eta jo!! eta jo!!! Azkenik... bildotxa bezala helduko zaizkik eskurat, bai emaztea eta bai pilota. Jo! orduan ere. Eta ttanttoa norena izanen? Hirezat!

DOMINIXE: Ez ba duk txapa jotzen!!

PANPILLI: (*Anaiari*) Errak! Noraino joana duk Geaxine?

DOMINIXE: Etxekiat. «Bereala arte» erran omen dik ateratzean.

PANPILLI: Tira ba gazteak. Erran beharrak erran ditugu. Ez denbora galdu. Zuek orai hobekiago zerate bakarrik. Beraz, agur, Beñat. Eta ondoko egunak arte.

MAYI: Zergatik «agur», aitatxo? Hoin gare ongi, hemen! Ama ere ez da urrun ibiliko. Jarri gaitz eta...

PANPILLI: Ez, ez. Orai zoazte, zoazte...

MAYI: Baina aitatxo...

PANPILLI: «Zoazte» errana dut eta zoazte. A! Ta entzun: Ama ikusten baduzute, hitzik ez. Entzun? Ez-eta hitzik ere.

MAYI: Zergatik aitatxo?

PANPILLI: Berri ona neronek eman nahi diotalako. Tira, zoazte errana dut eta zoazte.

DOMINIXE: (*Panpilli-ri belarrirat*) Ago deskantsuan. Joana duk-eta.

PANPILLI: Ezpaizekiat noraino. (*Gazteeri*) Bon. Erran bezala. Ba zoazte, bai edo ez? Joan hemendik, hemendik, baratzeko atetik...

DOMINIXE: (*Belarrirat*) Sartzekotan, hortik sartuko zaik.

PANPILLI: Baratzeko atetik?

DOMINIXE: Atzo ere, hortik ikusi nian sartzen.

PANPILLI: Hortik ez, hortik ez. Baratzea bustia duzute. Joan hemendik, ate nagusitik.

DOMINIXE: (*Anaiari belarrirat*) Eta erretorarenean baldin ba zegok? Ate nagusitik sartuko zaik berdin

PANPILLI: Nundik aterako dizkiat ba? Errak! Errak!! Ez!
Ez! Hortik ez! Zakurrak ezpaitik Beñat ezagutzen. Atera baratzetik, baratzetik!

DOMINIXE: Hor konpon, gero elgar topatzen baditek...

PANPILLI: (*Errotua*) Nundik ba? Errak! Nundik?

MAYI: Baina aita, zeren beldur zaitut?

PANPILLI: Beldur? Ni beldur? Ba al dakit nik beldurra zer den? Amari berri ona nihaurrek emateagatik ari naiz. Hi, Beñat! Hi pilotaria haiz! Tira! Egizak salto leihotik!

BEÑAT: (*Leiotik begira*) Baina jauna... hemendik jauzi egiteko ere...

MAYI: Leihotik ez, aita, leihotik ez! Bizkarrezurra hautsiko du!!

MIKOLASA: Nausia! Nausia!

PANPILLI: Zer da? Errotuko nauzute! Zer da?

MIKOLASA: Xilintxak! Xilintxak! Xo!! Ez dituzute entzuten?

PANPILLI: Eta zer? Xilintxak badire ere, zer? Uste duzute, xilintxengatik izituko naizela ni? Xooo!
(*Zaldi-xilintxak entzun bitez berriz*)

DOMINIXE: (*Bere baitan*) Hor zegok! Ber. a duk!

PANPILLI: Fuera! Fuera hemendik!

MAYI: Baina nundik, aitatxo? Zoaz zu baratzetik, Beñat!

BEÑAT: Ez andrea! Ni zurekin aterako naiz...!

PANPILLI: Ez jauna! Hik salto eginzak leihotik! Leihotik erran diat!

MAYI: Baiña aitatxo...

BEÑAT: Mayi! Eliza-ondoan elgartuko gera! (*Salto egi-ten du leihotik*)

MAYI: Aaaay!! San Bladi maitea! Ez dut begiratu nahi!

BEÑAT: (*Kanpotik*) Mayiiii...! Osorik naiz!

MAYI: (*Lehiotik*) Bizi zera? Banoa! (*Ateratuko da bertze nonbeitetik*)

PANPILLI: (*Izertia xukatuz*) Ikusi, duk, Dominixe? Nik zerbeit manatzen badiat... egin beharko. Hola nauk ni!

DOMINIXE: Hola haiz hi bai, gaixo gizona, hola haiz hi!

(*Soiñulariak*)

BIGARREN ZATIA

Jauregi-ko lili-baratze aberatsa. Buruz buru, burnimakilak eta burnizko atea. Haren gibeletik bideska. Urrunago mendiak. Ezkerrean etxea, bere ate nagusiarekin. Eskuin aldean oihana. Denbora hartako palmondo, landare, alki eta bertze. Ez ahantzi mendearen asieran gaudela. Etxeko atetik ateratuko dire Panpilli eta Iñaxio. Gure Panpilli golfman-ez jauntzirik, egiazki irringarri heldu da.

I. AGERRALDIA

Panpilli eta Iñaxio

IÑAXIO: *(Etxeko atetik ateratuz)* Ator hunat, Panpilli, ator hunat. Barnean baino hobekiago gaituk hemen, baratzean, eskola hartzeko. Golfean ikasi behar duk. Ator hunat.

PANPILLI: Hor ez, Iñaxio, hor ez. Barnean nahiago diat, hemen agerian baino.

IÑAXIO: Zer duk? Ahalgetzen?

PANPILLI: Norbaitek ikusten banau hola, golfmanez jauntzita, itxura huntan...

IÑAXIO: Zer? Ikusirik ere zer pentsatuko? Aberatsa haizela. Edo Kondia. Hoiiek ibiltzen dituk hola, golfian ikasten. Makila hauek ez dituk itzainen eskutan ikusiko maiz, egon trankil.

PANPILLI: Sar gaiten barnerat, Iñaxio! Jendearen aintzinean nola agertuko nauk hola, zapantzarrez jauntzita? Ahalgetzen hauk, Iñaxio. Tira, ator, ator barnerat...

IÑAXIO: Ez jauna. Hire andreak ekarria nau, Miarrizetik Hazparneraino, hiri golfean erakusteko. Eta berak errana dit: «Hementxet ariko zerate, baratzean, jendearen bistan. Ikusi dezatela, guk ere badakigula golfean. Hola errespetatuko gaituzte.» Entzun duk? beraz... har zak makila hau eskutan. Ez hola ez... Hola... Hola. Hau ez duk aitzurra, mutikoa! Zek uste duk? Arto-jorran ari haizela orai ere, gure gazte-denboran bezala? Zabaldu hitzak zangoak! Ez hola gizona... Zer pentsa behar dituk itxura hortan ikusten bahau-

te? Makurtu zak gerri hori... ez hoinbertze...
gehixeago... gehixeago erran diat... altxa zak
orai makila hori puliki, puliki... eskuineko besoa
apaldu gabe... ezkerreko zango hori gibelegi
duk gizona... etzakala eskuineko besoa okertu
mutikoa... bertzea altxa zak... altxa... sudurra-
ren mailla hartu arte... hor!... sar zak orai tripa
hori... hola... hola... hola; ipurdia ateratu gabe...
burua altxa zak goraxeago... hola... eskuineko
begiaz behazak orai pilota... eta ezkerrekoaz
eskuineko beharria... burua higitu gabe... burua
higitu gabe erran diat!

PANPILLI: Izerditan nagok, Iñaxio!

IÑAXIO: Ago ixilik! Golfean etzakala izerdia aipatu.
Entzun duk? Ago geldigeldi holaxet. Ez adi
mogi... egon holaxet... nik manatu arte... eta
erran zak orai: Good by!

PANPILLI: Good by!

IÑAXIO: Good morning!

PANPILLI: Gu monin!! Izerditan nagok, Iñaxio!

IÑAXIO: Ago ixilik! Ez hadila golfean euskeraz ari. Zer
pentsatu behar ditek entzuten bahaute! Errak:
How do you do...

PANPILLI: Attinttu!!

IÑAXIO: Ago holaxet, nik pipa pixtu artean. Ia guritzen zaizkitan pittat ezur eta zain horiek!

II. AGERRALDIA

Lehengoak eta jaun erretora

ERRETORA: (*Burnien gibeletik*) Baina, baina, baina, Aitaren eta semearen... (*lotzen da irriz*) baina gizona... (*farrez*)

PANPILLI: (*Ahalgetua*) Hori! Aintzina, Jaun erretora! Sar zaite...

ERRETORA: Baina gizona... (*Sartzen da irriz*) Nork ezarri zaitu zu, itxura hortan? Zer ari zinen hor? Xoriak izi arazten?

PANPILLI: Zer ba? Zer egin behar jakiteko, ez ote naiz aski handia nihaur?

ERRETORA: Bai gizona, bai. Barkatu, barkatu. Apeza izanagatik, ezpaitiagu umorea galdua. (*irriz*) Ni ere lotuko baninza... (*Paisola altxatzen du golfe-ko makila balo bezala, irria ezin atxikiz*) Iñaxio... hasi behar nauk ni ere golfean!... Barkatu, jau-

nak, barkatu... Badakit ez nuela hola irri egin behar baina... Ikusten direnak ikusi-ta... irri egin gabe egoitea ere...

PANPILLI: (*Iñaxio-ri*) Zer erran diat nik?

IÑAXIO: «Apezak azken hitza bere» aditua nuen, baina «azken irria» ez. Gu ere, zonbeit prediku entzun eta, berdin lotuko bai gintazke elizan irriz, Jaun erretora. Nahi duzu frogia egitea?

ERRETORA: Ez gizona, ez. Barkatu, barkatu...

PANPILLI: Ni ere gustorago ibiliko nindake pilotan, baina... gu bezelakoak golfean ibili behar izaiten bai dire.

ERRETORA: Bai gizona, bai. Bakotxak bete bitza bere egin-beharrak.

IÑAXIO: Ator oihanerat Panpilli, han trankilago egonen gaituk.

PANPILLI: Orai erraiten duk ori? Agur, Jaun Erretora. Berehala jinen zaizu etxekoandrea. Barkatu baina... (*Etxe atetik oihuka*) Mikolasa! Jaun erretora hemen dela erraiozu etxeko-andreari!! Agur beraz, Jaun erretora...

IÑAXIO: Agur...

ERRETORA: Bai, agur, jaunak, agur! Eta barka, barka... (*Otoitz-liburua zabaltzen du*) Jauna! Lagun zai-

dazula, orai ere, irriari gaina hartzen! Mundu huntan ez baita lan errexa... neretako bederen!

III. AGERRALDIA

Erretora eta Mikolasa

MIKOLASA: Egun on, egun on, Jaun erretora. Errana diot etxeko andreari. Berehala jinen zaizu. Jarri, Jaun erretora, Jarri. Zer hartuko duzu?

ERRETORA: Egun on, Mikolasa. Zer hartuko? Itzalean jarririk pausa pittat. Ba da munduan hoberik? Errazu, Mikolasa: nork manatzen du hemen?

MIKOLASA: Hemen? Aspaldi huntan deabruak, ene gustoko. Gure gaixo etxeko Jauna, horra nola ibilki duten. Eta sos guziak harek eginak izaki. Bere izerdiaz. Gure etxeko andrea ikusiko baze-nu! Soineko bat jauntzi ta bertzea ken, edergailu bat ken eta bertzea ezarri... harek ez du buruan besterik (*Ixilik*) Hereinegun eskeinia zion, nagusiak berak, Ezpeletako mediku gazteari, gure Mayi-ren eskua...

ERRETORA: Hola aditua nuen, bai...

MIKOLASA: Eta atzo berriz, Xato-rat joanak dire aita-amek, markisaren ikusterat. Ez dakit zer erranen zioten.

ERRETORA: Jainko maitea! Eta?

MIKOLASA: Eta? Etxerat itzuli ordu, amak oihuka alabari: Markisarekin eta markisarekin behar zuela ezkondu.

ERRETORA: Eta Mayi gaixoak?

MIKOLASA: Ezetz eta ezetz! Harek bere Beñat zuela maite. Aitak emana ziola harekin esposatzeko baimena...

ERRETORA: Amak orduan?

MIKOLASA: Aitari dei egin segidan eta galdetu: eia hura egia zen! Aitortzeko kopeta bazuen!

ERRETORA: Eta aitak?

MIKOLASA: Aitak? Betikoa! Lehenbizi baietz, gero ezetz, gero baietz eta ezetz, eta azkenean... ukatu!

ERRETORA: Jainko maitea! Alabak orduan?

MIKOLASA: Nigarrez lotu eta alde egin. Zer nahi duzu egitea?

ERRETORA: Eta aitak?

MIKOLASA: Alaba hartu berriz bakarrean eta: nigarrik ez egiteko, bere midikuarekin ezkonduko zela. Bertze guziak gezurrak zirela, etxean hura zela nagusi, ta holakoak...

ERRETORA: Beñatek artean?

MIKOLASA: Beñat-ek ez daki deusik. Aitaren baimena duelakoan, hura trankil duzu.

ERRETORA: Eta Markisa?

MIKOLASA: Markisa? (*Ixilka*) Orai etortzekoa zaigu, gure Mayi-ren eskua eskatzerat! Hitzemana baitiote atzo, neskaren burasoek!

ERRETORA: Ze saltsa! Bainan, zer saltsa!

MIKOLASA: Saltsa? Orai aterako da hemen saltsa! Orai, orai, goiz huntan!

ERRETORA: Zer ba?

MIKOLASA: Ez dizut ba erraiten, Markisa etortzekoa zaigula?

ERRETORA: Bakarrik?

MIKOLASA: Bai zera! Uda huntan etxean duen Moseño-re apaiz pinpirin horrekin!

ERRETORA: Mikolasa!

MIKOLASA: Barkatu, Jaun erretora! Guri ere hasiak bai zaizkigu zainak nagusitzen.

ERRETORA: Eta Beñat?

MIKOLASA: Beñat? Baina... orai etortzekoa dela ez dizut ba astian erran? Nun duzu zuk egun burua, Jaun erretora?

ERRETORA: Ze saltsa! Baina ze saltsa!

MIKOLASA: Zer erran behar dio orai Beñat-i, gure nagusiak? Baina ixo! Heldu da norbeit! Hemen erranak, Jaun erretora, begoz gure artean. Bertzela...

ERRETORA: Bai emaztekoa, bai...

MIKOLASA: Atzo ere... (*Ixilka*) Igorria ninduten etxetik. Beti bezala, Mayi-k antola behar, gero, puska guziak. Ixo!

ERRETORA: Nor dator?

MIKOLASA: Etxeko mutxurdina! Horren burua ere! Errotuko gaituzte hemen denen artean, errotuko!

ERRETORA: Bego, Mikolasa. Denek komedia egiten ari direnez, sar gaiten gu ere komedian. Umorea nausituko da hemen azkenean Mikolasa, ikusiko duzu!

MIKOLASA: Umorea? Ez nerea beti, jaun erretora. Nerea aspalditik hil zen.

IV. AGERRALDIA

Erretora eta Maiena

MAIENA: O, jaun erretora! Nere koinata laister duzu hemen. Eta ni laisterka jautsia, haren aintzinetik. Ba nuen-eta zuri zerbeit erran beharra. Etzait aixe ateratuko baina...

ERRETORA: Zer duzu Maiena, zer duzu... Jar zaite hementxet.

MAIENA: Bai, jaun erretora. (*Jartzen da*) Ez! Ez naiz hemen jarriko, bideari buruz. Nahiago diot bizkarra eman.

ERRETORA: Bideari bizkarra eman? Zer egin dizu bideak zuri?

MAIENA: Bideari edo... bidetik pasa ditazkeneri... Ez bai nioke nihorri pekatu egin-arazi behar! Gizon hoiekin kasu haundia eginez bizi beharra naiz, erretor jauna. Elizaraino joateko ere, beldur nauzu. Bidean kausitzen ditudan galtzadunen begietan irakurtzen bai dut, nik piztutako sua. Aragia ezpaita lo! Trankil egoiteko, zer egin behar nuke, jaun erretora?

ERRETORA: Hol-hola segi, Maiena.

MAIENA: Bai baina... gizoneri ez diet pentsamendu txarrik ekar araziko?

ERRETORA: Ez aixe, Maiena, ez aixe... (*Lotzen da irriz*)
Ez banu bertze buru hausterik...! (*Irriz beti*)
Leher egin-araziko nauzute zuek, etxe huntan!

MAIENA: Zer nauzu! Denen gustoak ezpaitira berdinak izaten...!

V. AGERRALDIA

Lehenagoak eta Geaxine

GEAXINE: Barkatu, jaun erretora. Gu bezalakoek ba dute beti zernahi egin beharra. Bati sosa eman, bertzeari konseillu... Nola duzute jaun erretora hola, idorrean, txanpaitik gabe?

ERRETORA: Txanpaitik aste-egun batez, hola, bazkal aintzinetik?

GEAXINE: Ze ba! Guk ura bezela edaten dugu! (*Maiena-ri*) Erran ekartzeko, Maiena.

ERRETORA: Ez, ez, neretako ez andrea.

GEAXINE: Zer uste duzu ba? Txanpain pinta batek leher egin-araziko gaitula gu? Ez gaituzu hortan, jaun erretora.

ERRETORA: Badakit, badakit. Ez da hori, bainan... Ohi-turarik ezpaitut nik hola...

GEAXINE: Guri berriz, txanpaiñik gabe, kusian mihia zikintzen. Barnea behar bezela garbitzeko, ez duzu txanpaiña baino gauza oberik. Langostak beheitiarazteko eta... Horra: Aspaldi zurekin mintzatu beharra nintzen, jaun erretora. Hargatik deitu zaitut. Nere iando zabalean zure etxeraino joateko, karrika ertsiegiak bai dire horiek. Sosaz nola zabilta, jaun erretora?

ERRETORA: Sosaz? Usaian bezela, Geaxine: beti nahikoa eta sekulan ez aski.

GEAXINE: Hola bizitzea ere! Sosik gabe! Har zazu hau, har zazu. (*Xekea ematen dio*) Hunek arinduko zaitu.

ERRETORA: Milesker, andrea. Jainkoak ordain deizula. Hementxet, nere meza-liburuan ezarriko dut. Eta behartzen naizelarik, baliatuko. Orai ere badut alargun gaixo bat...

GEAXINE: Behazu zenbatekoa den...

ERRETORA: Orai beatu? Tira ba... Nola? Zer da hau?
Nun ditut nik begietakoak?

GEAXINE: Astapena besterik ez duzu hori! Horrek eka-
rriko dizu ondorioa! Sosa guri erreka bezela
heldu bai zaigu tarrapataka, Ameriketatik...

ERRETORA: Baina Geaxine...

GEAXINE: Erdia gorde zazu zure beharrentzat eta...
bertze erdia igorri-ozu Aita Sainduari. Gaizo
hura ere, zu bezela ibiliko baita, sosik gabe.
Hola bizitzea ere!

ERRETORA: Baina... Aita Sainduak ez du sinetsiko! Haz-
parne-tik holako eskaintza!

GEAXINE: Ordainez ez dugu fitxik galdetzen. Izateko-
tan, oroigarri ttipiren bat... Zehorrek ikus...

ERRETORA: Eta... zer maite zenuteke ba, Erromatik
hartzea oroigarriz?

GEAXINE: Ez dakit nik... eh, Maiena?

MAIENA: Eh? Zer? Ez dut aitu! San Antonio-ri otoitzean
ari ninduzuten...

ERRETORA: Erran, erran... Zerk emanen atsegin, Erro-
ma-tik oroigarriz?

GEAXINE: Ez dakit ba... Aita Sainduak markistuko
bagindu...

ERRETORA: Nola? Markistu? Aita Sainduak zu markisa egin, Geaxine?

GEAXINE: Ta ze ba! Ezagutzen ditugu guttiagoz eginak!

ERRETORA: Orai ere, irriz lotuko bainintza ni, Geaxine, ez ninduzuteke zortzi egunez geldi-araziko. Baina ez. Nahiago dizut, oraingoan, serioски erantzun. Barkatu, anderea. Okerrean zaitut, nik uste. Eliz-gizona nauzu. Ez tratularia. Nik ari-mak biltzen ditut. Ez markisgoak saltzen. Tori. Har zazu berriz zure sosa. Bertze norbeitek beteko dizu zure nahia. Tratulariak izaten bai dire nonahi. Erroma-n ere, anderea. Baina otoi, har zazu bertze bide bat.

GEAXINE: Beraz... Lehen bezin pobre geldituko zera? Zehaurrek ikus!

ERRETORA: Ze ba! Usaitua nauzu! Hartatik dut, nik uste, irri merkea. Eliz-gizona obekiago duzu, Geaxine, arbola gainetik kantari, urrezko kaio-lan preso baino. Gorde zure sosak, anderea, gorde, gorde...

VI. AGERRALDIA

Lehengoak eta Mikolasa

MIKOLASA: *(Atetik oihuka)* Anderea! Anderea! Hor dire! Hor dire!

GEAXINE: Nun? Nor? Nortzu? Mintza zaite!

MIKOLASA: Markisa eta bere Moseñore!

GEAXINE: Nundik sartu dituzu?

MIKOLASA: Hobe dut ez erran...!

GEAXINE: Jainko maitea! Markisa sukaldeko atetik!

MAIENA: Markisa gure etxean, Geaxine! Barka jaun erretora, baina...

ERRETORA: Joan, joan! Ni ere ba noa etxerat, oihanetik otoitzean, xorien kantuak adituz...

GEAXINE: Gu bezelakoak hola ibilki zaizkizu beti: Markis eta Apexpikuen artean...

ERRETORA: Ze ba! Ze ba! Agur andereak, agur...

MAIENA: Agur Jaun erretora. Eta otoitz egizu gure alde!
(Bere baitan) Orai ere, gizonen aintzinean agertu beharko bai naiz ni!

VII. AGERRALDIA

Geaxine, Maiena, Markisa eta Moseñore

MARKISA: (*Erreberentzika*)

Eskumuinak andere eta andereñoa...

GEAXINE:

Zuri ere markis jaun...

MAIENA:

Erran gabe doa...

MOSEÑORE:

Goresmen, andereak...

GEAXINE:

Agur, Moseñore...

MOSEÑORE:

Atsegin haundia dut...

GEAXINE:

Eta guk ohore...

MOSEÑORE:

Markisaren etxean nauzute pausa hartzen

Ta bera zuenganat jin nahia bai zen

Erran diot: Gogotik zaitut lagunduko

Hola, Jaun-andre hoiek nik ere ezautuko...

MAIENA:

Zoin pulliki, zoin legun, zoin goxo mintzo den!

GEAXINE:

Holako erretor bat behar genuke hemen!
Baina zutik zaituztet. Aulkiak ba dira...

MOSEÑORE:

Nola jarriko gare?

GEAXINE:

Elgarri begira...

MAIENA:

Markisa begira dut, oh Jainko maitea!
Bere begietarik dariola kea...
Nik piztua badiot sua bihotzean
Hobe dut urrun jarri. Hemen... aintzinean
(Denak jarri)

MOSEÑORE:

Etxe ederra duzute!

GEAXINE:

Ederra-edo... Zerbait!
Neri, egia erran, ttipia iduri zait...

MOSEÑORE:

Zoin duzu ederrago?

GEAXINE:

Zoin? Batikanoa...

MOSEÑORE:

Bai, haren aldean hau... ttipiñoagoa

GEAXINE:

Aizpa! Ekarri txanpaiña, topa-egin dezagun...

(Maiena-ri beharrirat)

Nun da Mayi gordeta?

MAIENA:

Hor nunbeit... ez urrun.

GEAXINE:

Erraiozu: bereala hemen agertzeko

MAIENA: *(Bere baitan)*

Joanen naiz kasu eginez, sua ez pizteko...

(Badoa)

VIII. AGERRALDIA

Lehengoak, Maiena ezik

GEAXINE: Eta zu, Moseñore, nun bizi zera ba?

MOSEÑORE: Ni? Erroman.

GEAXINE: Erroman? Ongi heldu zera! ba dut Erromarako zerbeit, ez gauza haundi baina... emaiozu hau Aita Sainduari (*Xekea emaiten*)

MOSEÑORE:

Gogotik... Eh ...? Hau den? Baiñan anderea...!

GEAXINE:

Horrek eginen dizu, gero ere, umea...

MOSEÑORE:

Otoi! Erran, ordaiñez zer nahi zenuteken...

GEAXINE:

Deusik ez...

MOSEÑORE:

Otoi! Erran zuen nahia zer den

Erroma-tik igorri dezadan lehen beit lehen

Bertzerik ez bada ere... markisgo bat bederen?

GEAXINE:

Elizari ukatzea itzusi litake

Ta estimatzeko bada... hartuko genuke

MOSEÑORE:

Utzi nere eskuetan. Ah! Behar dut jakin

zuk noren izenean duzun eskeintza egin...

GEAXINE:

Hortaz... etxeko denak eginak gare bat

Ta markisgoa betor... etxeko nornahitzat!

Goitia da gure izena. Orai... zuk ikusi

Markisa izatea nork luken merezi

(Erastuna erakutsiz)

Dirua behar bada markisa izaiteko

Aita Sainduari erran: trankil egoiteko!

(Pausa)

Markisa ixilik dugu...

MARKISA:

Gogoetan bai naiz ...

MOSEÑORE:

Olerkariak oro hola dituzu maiz

Eta hunen gisako jakintsun haundiak

Ez dituzu, usaiaz, eleketariak

Hau minzo ba zaizue, beharriak erne

Jakintasun osoa baitu bere barne...!

IX. AGERRALDIA

Lehengoak eta Maiena

MAIENA:

Huna hemen txanpaiña...

GEAXINE:

Edan beldur gabe...

Brindis-a nork eginen denak beha gare

MOSEÑORE:

Seguru naiz markisa zutiko dela

Eta pertsutan zerbeit erranen duela

MARKISA: (*Xutituz*)

Zutik mintzatuko naiz, bai naiz olerkari...

Zer naiz? Debru? Aingeru? Ala soinuari?

Xiruli, xiruli, xiruli, xiruli...

(*Jartzen da*)

MOSEÑORE:

Gora zu, nere lagun olerkari eder!

GEAXINE:

Neri, golpez, nigarra begitarat ager!

MOSEÑORE:

Nik holako pertsurik ez dut nihoiz entzun...

MAIENA:

Xiruli! Ze hitz pulit, goxo eta legun...!

MARKISA: (*Berriz xutituz*)

Markis bati, andreak, dena amodioa

Aingeru batek zion ebatsi gogoaa...

Markis hura duzute gaur hunat heldua

Aingeruari nahiz ebatsi eskua...

MOSEÑORE:

Munduan ez da entzun holako olerkirik!

GEAXINE:

Tripak oro bai ditut dardaraz pilpilik!

MAIENA:

Begiak nituela altxatu nahi gabe

Markisak ezarri nau aingeruen pare...!

X. AGERRALDIA

Lehengoak eta Mayi

MAYI: Dei egin didazu ama?

GEAXINE: Bai. Etxean ditugun jaun haundi hauek nahi zinduten ezagutu, Mayi. Agurtu itzazu, ikasia duzun bezala: a la mamasel.

MAYI: Barkatu, ama. Ni Hazparneko neskatxa bat naiz. Odolez baserritarra, aitaren eta amaren aldetik. Beraz, ez neri eskatu hemen komedia egiten ibiltzea.

GEAXINE: (*Sutan*) Entzun duzute? Baserritarra omen da!

MOSEÑORE: Gazte hoi en umorea! Zuen alaba, baserri-tarra! (*Irriz*)

MAYI: Bai jauna! Gure famili guzia baserrian da bizi, eta gure aitaren anaia zapataina da.

MOSEÑORE: Ageri denaz, herri huntan ez da umorea eskas. Zuk osaba zapataina!

GEAXINE: (*Alabari beharritat*) Ixiltzen ez bahaiz, ikusi-ko dun!

MAYI: Barkatu ama, baina nik egia dut maite.

MOSEÑORE: Lehendik ezagutzen nuen, nihaurrek ere, andereño pulit eta lirain hau. Ez beharba begiz, baina entzutez. Gure markisa ez bai zaigu ixiltzen, beti bere Mayi gogoetan. Zer nauzu! Amodioa hola izaki, olerkari entzat bederen...

MAYI: Amodioa?

GEAXINE: Amodioa, bai, amodioa. Ez dakin markis jaunak nola begietan hauen aspalditik? Bi hilabetez hamar kilo galduak dizkin, gaixoak. Begirazan horren itxura. Eta hi nun nago? Ilargian, noski!

MAYI: Nor da hemen markisa? Hori? Horrek ez nau ni ezagutzen, ama. Erran garbi: Nundik ezagutzen nauzu ni?

MARKISA: Ametsetan hameika aldiz musukatua zaitut,
Mayi!

MAYI: Zaude ixilik zikina beharrondoko bat ez baduzu
hartu nahi!

GEAXINE: Ixo, Mayi! bertzela zuk hartuko bai duzu
beharrondokoa!

MAYI: Ixo? Ni ixo? Ama izaki eta, lotsagabe zirtzil hori
ixilarazi beharrean, ni nahi nauzu ixilarazi? Ziki-
na, bai ama noski, zikina! Nere senargaiak ez
dizkit hoino bere ezpainak kopetaraino hurbildu
eta, ustel horrek musukatuko nau ba ni? Mirrin
horrek!

MOSEÑORE: Senargaia duela erran du?

MARKISA: Senargaia?

GEAXINE: Bai zera! Zuek ez ongi aditu! (*Mayi-ri*) Ago
ixilik Mayi, bertzela, oroituko haiz nitaz!

MAYI: Senargaia bai, senargaia!

MAIENA: Gaixoa! Urde goseak ezkurra amets! Hobe
dut ixildu...

GEAXINE: Bai zera...! Senargaia... Ukanen lukela...
Erran nahi izan du... Jaun markisak eginen
balio... ohore hora.

MARKISA: Pertsutan galdetuko dizut beraz alabaren
eskua...

MOSEÑORE: Ixo denak! Ez bai zaigu markisa mintzo, baizik olerkaria!

MARKISA: Uso bat egazka heldu, pio, pio, pio, pioErrekañoak edaten emanen ez ote dio? Pio, pio, pio, pio...

MOSEÑORE: Nahikoa! Ederraren ederraz ez gaitezen ito!

GEAXINE: Nor bizi ziteken Parisen, holakoak egun oroz entzuteko!

MAIENA: Pio, pio erran dit, pio, pio...!

MARKISA: Bertze bat, bertze bat!: «Amodioz egarri naiz Mayi! Freskatuko al nauzu?»

MAYI: Freskatuko zinduket bai nik eta gustoan, pitxar bat ur aldean banu! Entzun orai! Eta ahal baduzute, ez itzulipurdika erori. Nere eskua emanda, Euskal Herrian den mutiko gazte bikainenari: Beñat Elizanburu, Ezpeletako midiku gazteari. Iretsi duzute? Ez zaizue zintzurrean kokatu? Hobe!

GEAXINE: Gezurra! Gezur ustela! Nere alaba haiz hi?

MAIENA: Egi osoa balekite!

MARKISA: Umoreak ere ba du bere neurria, Mayi. Mintza gaiten serioski!

GEAXINE: Nork eskeiniko zion nihorri zure eskua, ni banago hemen, eh? Erran!!

MAYI: Nork? Entzun ba denek ongi: aitak!!!

GEAXINE: Aitak? Aitak erran du? Oilaskoari bezela okertuko diot nik horri, egun batez, lepoa!

MARKISA: Gaizki erori zera, Mayi! Zure aitaren ezpainetarik entzun bainuen atzo, sekulan amestu nezazken hitzik goxoenak: «Agur seme, agur semetxo» erraiten zidan atzo bertan, amarekin batean etxetik ateratzean.

MAYI: Bai, eh? Egon hortan, egon! Horra! Hemen da bera. Orai garbituko ditugu bazterrak. Galdetuko bai diagu berari! *(Panpilli agertu bedi oihane-tik, kopetako izerdia xukatuz. Dominixe haren onditik heldu.)*

XI. AGERRALDIA

Lehenagoak, Panpilli eta Dominixe

PANPILLI: Xuritik, baso-erdiño bat edanen diagu Dominixe, hementxet itzalean trankil jarri-ta.

DOMINIXE: Berdin gomitatzen baduk. Baina... (*Bertzeak sumatuz*) Oi, oi! Horiek ez dituk neretzat, Panpilli! Jaun haundiak dituk etxean. Gaki nauk ni oihanetik berriz etxerat.

PANPILLI: Ez jauna. Hi nere anaia haiz eta ez haut ukatuko. Ago hemen.

GEAXINE: (*Mayi-ri beharrirat*) Hau behar ginuen orai hemen: Zapataria.

MAYI: Ze ba? Ez da gure osaba, ama?

GEAXINE: Gu bezelakoek ez dute familian zapatari beharrik.

PANPILLI: (*Anaiari*) Ago hemen, erran diat, entzunduk? Hi nere anaia haiz, hemen eta nunahi. Arratsalde on, Jaun eta andereak!

GEAXINE: Nere senarra da. Golfetik heldu da, goiz guziez bezala. Bonxur Panpilli! Tinété pa fatigé? Hemen duzu gure Moseñore. Markisa ezagutzen duzu atzotik?

PANPILLI: (*Mayi-ri begira*) Bai... (*Agurtzen ditu*) Eta hau berriz, gure Dominixe. Ezagutuko duzute! Herrian ezaguna baita.

GEAXINE: (*Bere baitan*) Sar zak, orai ere, zangoa!

DOMINIXE: (*Moseñore agurtuz*) Nor dugu hau? Aita Sainduaren lagun bat segurki? Ederki, ederki.

Hau berriz, Markisa? Zer zioten ba holako gizon mirrina zela bera? Oraindik ba du hunek itxura pittat. Osasun on Jaunak!

GEAXINE: (*Beharrirat*) Dominixe, laster eguerdi duzu. Andrea zuri beha izanen da. Obe duzu etxerat joan segidan. Joan zaite hemendik, hemendik, oihanetik...

DOMINIXE: Bai Geaxine, bai... Ez kexa! Nihaur ere ahalgetzen bai naiz holako jende haundien artean. Ba dakizu aspalditik Geaxine: Ez naizela ni eliza barneraino aixe sartuko zaizun zakurra. Ikasia naiz, behar delarik, atean zain egoiten. Beraz... agur Jaun andreak. Egon holaxet deskantsuan, freskura hartzen... (*Abiatzen da*)

MAYI: Eda-zu gurekin txanpaitz xorta bat, osaba!

DOMINIXE: Ez Mayi, ez. Egun ez. Estimutzen dizut, baina, ez. Etorriko zaigu guri ere, Mayi, txanpaitz edateko eguna. Agur jaun andreak, agur. Eta barkatu, behar etzelarik agertzea. (*Badoa*)

PANPILLI: Lagunduko haut, Dominixe...

DOMINIXE: Ago hemen hi, gaixo gizona!

XII. AGERRALDIA

Lehengoak, Dominixe gabe

PANPILLI: Zuen baimenarekin, gaki naiz ni ere, atorra aldatzerat. Izerdi busti hunek ez baitu gauz onik ekartzen.

GEAXINE: *(Bere baitan)* Aipa zak orai ere izerdia!

MAYI: Joan? Ez aita! Egia behar dugu jakin lehen-bai-lehen!

PANPILLI: Egia? Zer egi? Izerdi otz hunek...

GEAXINE: Egia bai, egi osoa! Aitu-zu? Jarri zaite hemen... Zu ere, Mayi... Eta mintza gaiten, gu bezalakoek hitzegiten duten bezala, bertsoan: Markis Jauna jina zait, beti bezin zaldun Moseñore ondoan duelarik lagun Apalki galdetzerat Mayi-ren eskua Eta erantzunaren zain hor dago gaixoa!

(Senarrari)

Etxe huntan beti zuk manatu bai duzu
Bertzeak deus ez gera. Beraz erran zazu
Izerdi hoiek eta betikotz ahaztuz
Zer manatzen diguzun alabari buruz

PANPILLI:

Nik alabari buruz... zer nau-zu erraitea?
Egin dezala, berak, nigatik berea.

MOSEÑORE:

Bai, baina zure nahia harena izan dedin,
Behar zenioke erran prestuki zer egin.

PANPILLI:

Zer nahi-zu erraitea...?

MARKISA:

Atzoko berbera,
Hitza jaten dakizun gizona ezpazera.

PANPILLI:

Uffff! Izerditan nago... Zer da hitz jatea?

MAYI:

Ereinegun errana egun ukatzea.

MARKISA:

Edo... atzo agindua gaur ez ematea.

GEAXINE:

Entzun neri, ni bai naiz hunen emaztea!
Munduko gizonetan hau da egiazko gizon!
Hau mintzo zaigularik, hobe ixilik egon,
Ez du oiherik beharrik berea egiteko,
Begiratzea aski du... denak iziteko!
Eta igarria diot, begitarte hortan
Ba dakarrela zerbait bere gogoetan.

PANPILLI:

Gora zu, nere andrea! Zuk ezautzen nauzu!

GEAXINE:

Mintza zaite senarra, denak so gaituzu!

PANPILLI:

Etxe huntan ni bai naiz nausi ta jabea...

GEAXINE:

Zuk Mayi hobe duzu ixil egoitea...

PANPILLI:

Nere alabaren esku...

GEAXINE:

Erran duzu nahiko...

PANPILLI:

Egundik izanen da ...

GEAXINE:

Markisarendako!

Gora gure gizona!

MAYI:

Bainan aita, entzun!

MOSEÑORE:

Bertze holako gizonik ez da aurkitzen nihun!

MAYI:

Baina aitatxo, mezedez...

PANPILLI:

Ixillik ta ixillik!

MOSEÑORE:

Gizon horri begira nago harriturik!

GEAXINE:

Gora nere senarra!

MAYI:

Bainan ereinegun...

PANPILLI:

Ereinegun ez da atzo, atzo ez da egun!

MOSEÑORE:

Oi! Oi! Argi ikusi dut: Filosofoa da!

MARKISA:

Nere agurra bertsoan dijoakiola!

MOSEÑORE:

Olerkariak agur filosofoari!

MAIENA:

Ta hau guzia neretzat! Gehiegi! Gehiegi!

GEAXINE:

Edantzagun txanpaña, jaun andreak!

MAYI: (*Basoa lurrerat botatuz*) Nik ez!

Saldu behar nauzute txanpaña edanez?

(Beñat sartzen)

XIII. AGERRALDIA

Lehengoak eta Beñat. Gero Mikolasa

BEÑAT: *(Arriturik)*

Zer da hau? Zer da hemen? Zer duzu nigarrez?

MAYI:

Saldu nahi naute, Beñat, ni zurea izanez.

GEAXINE:

Hire jabe bakarrak, alaba, gu gaiten!
Domini! Gizon hori bota hemendik urrun!
Nork eman dio huni sartzeko baimena?

MAYI:

Aitak! Nere aintzinean! Erran ezetz, aita!

PANPILLI:

Bai baina... ez bai ta ez... gauza bera baita.

MARKISA:

Gora filosofoa!

BEÑAT:

Bai, zato nerekin!!

Goazen! Eskapa gaiten etxe huntarik arin!

(Abiatzen dira)

MIKOLASA: *(Atetik)*

Ez Mayi, ez! Hola da itxura!

Hola iges-egiteak ez luke ganura...

Etxeko alaba zera. Geldi zaite etxean!

Ta oihalak etxi bitez, hau garbitu artean!

(Soiñulariak)

HIRUGARREN ZATIA

Bigarren zatiko lili-baratze bera. Oihalak zabaltzean ez da nihor ageri. Gero, ixilik, burni-makilen gibeletik, mutiko-multxo bat ageriko da.

I. AGERRALDIA

MUTIKO I: Ixo! Ixo! Ibili ixilik!

MUTIKO II: Ba zaizte?

MUTIKO III: Bai, bai! Asi! Asi!

MUTIKO I: Ixo! Ixo, mutikoak! Ez egin arrabotsik!
Denak batean egin behar diagu oihu. Ba zaizte?

MUTIKO III: Bai,! Asi!

MUTIKO I: Bat... bi... hiru...!

DENAK:

«Markisaaaa! Markisaaaa!
Ongarri-usaina-usaina ta markisaaaa!
Baserritarra ta markisaaaa!»

(Ate-xilintxa astinduko dute gero. Eta eskapatuko dire lasterka)

MIKOLASA: *(Etxetik ateratuz, sutan)* Orai ere, mutiko ustel mukitsu horiek... *(Burnizko atea zabaldu eta kanpotik):* Gorde zuen buruak, gorde! Gorde ongi! Ez bai zaizue balioko! Jaun Auzapezari emanen diozkat nik zuen izenak! Antolatuko zaizte harekin! Urde-zikin-mukitsu-ustelak! *(Atea exsi eta bere batean):* Zer da hau? Baina zer da hau? Hau iragan ez duenak ez daki bihotzeko mina zer den. Zer egin dut nik nere bizitzan, Jauna, azkenean... markisa baten etxean neskato egon behar izateko! Egia erran... markisa izatea ez dakigu xuxen zer den baina... egungo egunean... zernahi pasatzen bai zaio bati burutik... *(Sartzen da etxerat).*

MUTIKOEK: *(Beren gorde-tokitik):*

«Markisaaa! Markisaaa!

Ongarri-usaina ta markisaaa!»

II. AGERRALDIA

Dominixe eta Erretora

ERRETORA: Mutiko debru hoiek orai ere! Aditu dituzu, Dominixe?

DOMINIXE: Bai jauna, bai. Aditu ez ba nitu, hobe. Baina ez da arras heien falta. Ez litazke hoiek hola ibiliko, aitzakirik ez balute.

ERRETORA: Itxura hiluna duzu, Dominixe. Nun da gure Hazparne-ko zapatari alegera hura?

DOMINIXE: Sosik gabe usaituak gaituzu begitarte alegerakin ibiltzen, jaun Erretora. Baiña errespeturik gabe ez.

ERRETORA: Azkenean, umorea nagusituko da hemen Dominixe. Hemen geldituko zera?

DOMINIXE: Bai jauna. (*Ixilka*) Xagu Ikusi beharra dut. Eta ba dakit hemen dela. Baina... etxean sartu baino lehen, behar diot gure jaun erretorari galderatxo bat egin: Egia dea, zure bitartez, gure Geaxine-ri etorria zaiola atzo Erromatik markisgoa?

ERRETORA: Ez kexa. Dominixe, ez kexa. Ez dizut ba erran azkenean umorea nagusituko dela

hemen? Bakotxak bere lana, Dominixe. Erran bezala: Gazte hoién amodioa har zazu zuk zure gain. Zaharren haundinahikeria utzi nere kontu. Errespetua nagusitu arazi behar dugu Hazparne-n, Dominixe. Eta, denbora berean... irri pittat egin ere bai. Egungo agindua diote jaun Markisari Mayiren eskua. Bazkari izigarria montatua omen dute. Ez dugu, beraz, denbora galtzekorik.

DOMINIXE: Nik nerea pentsatua dut, jaun erretora. Nik badakit nola joka.

ERRETORA: Ni ere ez naiz ba lo egonen, Dominixe.

DOMINIXE: Gero arte, beraz, jaun erretora.

ERRETORA: Bai. Atso zahar baten pekatuak entzun, kafesne xorta bat iretzi eta bereala hemen naiz ni ere. *(Ba doa irriz. Dominixe-k joko du atexilinx).*

III. AGERRALDIA

Mikolasa eta Dominixe. Gero Panpilli.

MIKOLASA: (*Etzetik ateratuz*). Arrapatuko ditut nik azkenean ipurdizikin hoiek! Hori...! Zu ziñen, Dominixe? Sar zaite, sar! Ba dugu zure beharra! (*Atea zabaltzen dio*). Zer berri dugu? (*Erdi nigarrez*) Jakinean zaitut, naski?

DOMINIXE: Ba, ba. Jakinean naiz, ba. Atzotik herrian zabaldua baita berria: (*Ixilka*) Jaun erretorari, atzo etorria omen zaio Erroma-tik anbelopa haundi bat, urrezko zintaz lotua.

MIKOLASA: Beraz... akabo? Galduak gera?

DOMINIXE: Herrian hola zabaldu da beintzat: «Hazparne-ko Anderea»-ri etorria zaiola Erroma-tik bere markisgoa.

MIKOLASA: Guk orai entzun behar ditugunak, Mikolasa! Neri ere sukaldean zapata-konpontzen ari nintzela, atzotik asiak zaizkit herriko mutikoak oihuka leihotik: «Zapatariaren koinata Markesa de ojalata!»

MIKOLASA: Jesusus!! Markisa zer den ez dugu galdetu nahi ere ta, zer ote da ojalata! (*Nigarrez*).

DOMINIXE: Nun dire hoiek?

MIKOLASA: Mayi kanpoan. Bere Beñat-ekin elgarretaratzekoa zen, egun ere nunbeiten, izkutuan. Anaia etxean duzu. Laister aterako da. Egun

eman beharra bai diote Xagu-ri gure Mayi-ren eskua. *(Nigarrez)* etxeakoandrea hor ibilki zaizu markisarekin oihanean. Odolezko zaldiak ekarriak dituzte ez dakit nundik. Gure Pettan baratzainari, erakutsia diote turuta jotzen. Zakurrak ere libratzen dituzte saingaka. Eta hor ibilki zaizkizu denak, gorriz jantzirik, erreka gainetik saltoka. Ereinegun, erbia zelakoan, auzoko gatua hila dute tiroka. Atzo berriz, itzulipurdika ibilia zaizu anaia belarretan.

DOMINIXE: Hura, asto ganean ohitua baita ni bezala!

MIKOLASA: Ixo! Zaldi-urratsak ez dituzu aditzen? *(Oihanean, urrundik, entzun bitez zakur-saingak eta iziturutak)*. Ixo! Obe dugu baztertu...

DOMINIXE: Baina, baina, baina... Nun dute hoiek burua? *(Mutiko-multxo bat pasa bedi bidetik laisterka)* Hor dituk! Hor dituk!!

MIKOLASA: Hau tristura, Dominixe, hau tristura! Txo! Geaxine oihuka...

GEAXINE: *(Oihan-barnetik)* Panpilliiiiiii!!
No te bienes o qué andas?
Por entzima de la erreka
Te andamos saltando a txandas
Par dessi de la Ribier

Jé sui passé la premier!
Abec lé marki par derrier...
Béné, béné, béné
Béné bou proméné
A txebal don la foré
Panpilliiiiii!

*(Zakur-saingak eta izi-turutak entzun
bitez berriz)*

MIKOLASA: *(Nigarrez)* Erotegirat, Dominixe, Erotegirat...

DOMINIXE: Erderaz egiten du orai Geaxine-k?

MIKOLASA: Debekatua digu euskeraz. Eta nik erderaz ez jakin...! *(Lotzen da nigarrez)*.

DOMINIXE: Bere haundi-nahia asetzeagatik, salduko lituzke horrek denak: odola, familia, mintzaira, Herria...

MIKOLASA: Ni ba noa etxe huntarik! Ahalgeak akabatuiko bai nau bertzela! Goseari baino beldurrago diot nik irringarrikeriari.

DOMINIXE: Nik ere, Mikolasa. Eta gure Permina gaixoak zer esanik ez. Hauek erotzen asiak diren puntutik, hura etzaizu etxetik ateratzen ere.

Ilundu eta, elizaraino joanen zaizu. Bertzela etxean.

MIKOLASA: Ameriketan asi ziren hoiek, Dominixe, aberaskeri haundienak nork eginen zituen. Egunen batez langostarik ez ba-zen gure etxean, erotuko zitzaizun Geaxine: hori jakin-eta, zer pentsatu behar zuten bere lagunek! Aintzinetik amets bat zuten: aberastu. Aberastu-eta, beren diruak agertu. Gero, berriz, markis eta kontesekin ibili. Hunat etorri-eta, Xagu ezagutu behar izan zuten eta... horra ondorioak.

DOMINIXE: Geaxine anitz dire Euskalerria-n, Mikolasa. Gure Herriko pekatuak dire hoiek: Geaxinekeria eta Panpillikeria. Baina ixo!

MIKOLASA: Bera da, bai. Anaia duzu.

DOMINIXE: Gorde gaiten (*Arbola baten gibelean gordeko dira. Panpilli agertu bedi, etxetik, zaldilariz jantzita: galtza xuri, maripulis gorri, oinetako beltz eta eskunarro zuriak.*)

PANPILLI: (*Bere baitan*) Orai ere... gure erretorak ikusiko banindu ni hola... Langostaz jantzita... (*Oihanari begira oihuka:*) Geanixe!!! Ze zaldi utzi didazute gaur? Bukingan ala Belinton?

Bukingan hartuko dut... botatzen banau ere...
apaltxagoa baita (*Oihanean sartzen da*).

MIKOLASA: Ikusi duzu, Dominixe?

DOMINIXE: Ikusi ez banu hobe, Mikolasa.

MIKOLASA: Ni etxe huntan egon? Ez, ez. Mikolasa-k ez du errespetua horren merke saltzen.

DOMINIXE: Nola? Zu etxe huntarik joan? Zure odolekoak utzirik, haundinahiaren aztaparretan preso, erotegirako bidean? Ez ahantzi, Mikolasa, gure familiakoa zerala zu ere. Zure aita zena eta gurea...

MIKOLASA: Xo, Dominixe, xo! Etzazula, Jainkoaz, hola-korik aipa! Atzo ere, norbeiti hori bera entzuz eta, sutan emana zaizu etxekoandrea. Sukaldeketik entzuten nituen. nik haren oihuak: «E be! E be! Abek la bonne aussi bou boulé maparenté? Abek lé sandalié aussi nou nabion pas assó ou kua?»

DOMINIXE: Mikolasa...

MIKOLASA: Zer duzu, Dominixe?

DOMINIXE: Zure laguntza behar dut. Hoiiek ezin ditugu hola utzi. Errespetuaren itzalerat behar ditugu berriz ere ekar-arazi. Erretorak eginen omen du bere lana. Ni ere saiatuko nauzu nerea egiten.

Zuk lagunduko gaituzu. Eta denen artean... Iru-rak ere ez bai gera arras zozoak...

MIKOLASA: Xo! Heldu dire oihanetik! Begira, begira hoi en itxura...

DOMINIXE: (*Oihanari begira*) Aitaren eta Semearen... Hoiek ez dute salbamendurik... Baina, baina... Gorde gaiten, gorde gaiten... (*Gordeko dira*).

IV. AGERRALDIA

Geaxine, Panpilli eta Markisa. Pettan turutalaria eta Ganix zakur-zaina. Hoiek joanda, Dominixe eta Mikolasa. Urrundik entzun bitez zakur-saingak eta turuta-soiñuak. Oianetik agertuko dire denak, Xibero-ko dantzariak (Zamaltzain-ek) ibiltzen dituzten zaldi-itxuren gainean galopaka. Aintzinetik turutalaria dator, gero zakur-zaina, gero Geaxine, gero Markisa, azkenik Panpilli, denak xurigo-rriz jantzirik erbitara bezala.

GEAXINE: (*Gelditurik*)

Bené, bené, bené
Bené bou promené
Diné fasson eskis
Kom lé fon lé markis
A txebal dan lé boi
Kom sa:
Régardé moi!

(*Galopaka*)

PANPILLI:

Geaxine! Ipurdia gorri-gorri egina dut atzotik!

GEAXINE:

Né mé parlé pa an bask
Ké ask!
Parlé moi de txebal
De golf é de ténis
Kom le fon lé markis
Mé né mé parlé pa
Txebusanpri de kuis
Sé né pa lé langax
De un markis!

MARKISA:

En qué cavayo va a montarr luego marrkesa?

GEAXINE:

En el mas caro
La pata si se rompe tambien
Comprar otro y akabo
La que tiene porque tiene
La que no tiene que aguante
Unas andan con la escoba
Y otras con sombrero y guante
En baskuentze bas a ablarle
A la que anda con diamante?
El padre tengo de Hazparne
Y la madre de Bilbao
La langosta ya te como
Pero el bakalao...
Al gato le tengo dao!
Béné, béné, béné
Béné bou proméné
Diné fasson eskis
Kom le fon le markis
A txebal dan lé boi
Kom sa:
Regardé moi!

(Galopaka)

Kant on nou-féra markis
Nou nouss iron a Paris

Pour bisité les amis
E pour xoué o tenis
Kom sa: Pliss!

PETTAN:

Nausia...

PANPILLI: Zer duk, Pettan?

PETTAN: Eguneroko ogia irabazteagatik ez balitz, ez ninduzuteke ni hemen itxura huntan ikusiko.

GANIX: Goazen hemendik lehenbaitlehen, nausia. Hemen toki agerian gare.

PANPILLI: Markisak hola ibiltzen dituk, gizona!

GANIX: Ibil-arazten ere!

GEAXINE: Entzun duzu, Panpilli? «Ma petit bélmér» erran dit markisak. Ze gauza pullita! Béné, béné, béné, béné bou proméné a txebal dan la foré...

(Galopaka eta jauzika, sartzen dire denak oihanean.)

PANPILLI: Ni ez noa hortik, Geaxine! Erreka gainetik ez! *(Bere zaldiari)* Gu, bertze bide hortarik joanen gaituk, eh, Bukingatxo? Belardian ibiliko gaituk gu, urratsean, ttaka ttaka... *(Sartzen da).*

DOMINIXE: (*Gorde-tokitik ateratuz*) Xo! xo, Mikolasa! Xuka itzazu begi hoiek. Ez dugu nigar egiteko astirik. Horra zer egin behar dugun... Baina ixo... Bidetik heldu da norbait... Beñat eta Mayiren bozak... Zer dute hoiek hola oihuka ibiltzeko? Sar zaite etxe-barnerat, Mikolasa. Utzi nazazu gazte hoiekin bakarrik. Hitzegin beharra diontet.

MIKOLASA: Bai, bai, ba noa sukalderat. Hantxet egoten bai naiz ni ongien...!

(Sartzen da).

V. AGERRALDIA

Mayi eta Beñat (bidean agertuko dire).

Gero Dominixe

MAYI: (*Beñat-i besotik tiraka*) Ez, eta ez, eta ez! Etzera joanen! Etzaitut utziko! Beñat, otoi! Sar gaiten etxerat!!

DOMINIXE: Zer da? Zer duzute? (*Atea zabaltzen du laisterka. Gazteak sartzen dire.*)

MAYI: Erraiozu ezetz, osaba! erraiozu ez egiteko! Zubitik bera bota nahi du errekarat!

DOMINIXE: (*Trankil*) Bere burua?

MAYI: Ez, markisa!!

DOMINIXE: Ba! Bota zak, bota! Aterako zaik! Xaguek ba zekitek igarika.

BEÑAT: Nik ez dut irri egiteko gogorik, Dominixe.

DOMINIXE: Eta zer uste duk? Izituko naukala ni, hire espantuekin? Hil! Hil! Beti hil! Nik bizitza maite diat ba. Eta xaguek ere, bizitzeko eskubidea ditek. Gizontasunaren alde gaituk emen. Eta gizona izateko, ez duk aski galtzak soiñean erematea. Gizonak burua behar dik, burua!

BEÑAT: Zer egin behar dugu beraz?

DOMINIXE: Zer egin? Elgarren konfiantza ba duzute?

MAYI: Nik bai.

BEÑAT: Nik ere bai.

DOMINIXE: Zuen adiskidetzat nauzute?

MAYI: Nik bai.

BEÑAT: Bai-eta nik ere.

DOMINIXE: Eta zapatari izanagatik, zuek baiño adimendu geixeago ba dudala sinesten duzute? Entzun

ba ongi. Eta nik errana egin. (*Ixilka*) Hi Beñat, gorde hadi arbola horren gibelean. Eta zu, Mayi, sar zaite oihanean. Hitzegiozu Markisari ahal bezin goxoki...

BEÑAT: Hori ez!

DOMINIXE: Ago ixilik!

MAYI: Baina... zertaz mintzatuko nauzu ni harekin?

DOMINIXE: Zertaz? Egun eman beharra dizun eraztunaz-eta, ezkontzari buruz-eta...

BEÑAT: Hori ez! Hori sekulan ez!

DOMINIXE: Ago ixilik hi, xagu-hiltzaile! Ba duk edo ez duk konfiantza? (*Mayi-ri*) Erran bezala, beraz: goxoki hartuz markisa hunat ekarriko duzunean, hementxet izanen nauzu ni, trankil jarrita, egunerokoa irakurtzen. Ni ikustean, harrituko zera: «Hori! Zu hemen, osaba? Hobe! Hola utziko zaituztet biak elgarrekin. Egun pesta haundia bai dugu, bazkariari behar diot begi-golpe bat eman.» Eta sartuko zera etxean. Bainan ez zera urrunduko. Ate-zokoan gordeko zera. Eta nik eztula egitean aterako berriz.

BEÑAT: Noiz aterako naiz ni, Dominixe?

DOMINIXE: Markisa biluzik ikusiko dukanean.

BEÑAT: (*Irriz*) Galtzak behar diozkatzu kendu?

DOMINIXE: Ze ba! Arimako galtzak! Arima utziko bai zioat nik biluzik, txatxu horri. Tira: bakoxta bere lanera. Mayi- San Bladi maiteak lagunduko ahal nau! (*Sartzen da oihanean*).

BEÑAT: Ze irriak egin behar ditugun, Dominixe! (*Gordetzen da.*)

DOMINIXE: Hori! Bidetik ba zetorrek norbeit (*Jaun Erretora sartzen da*).

VI. AGERRALDIA

Dominixe eta Erretora

DOMINIXE: Sartu, sartu. Atea ideki duzu, jaun erretora.

ERRETORA: Bakarrik? Nun dire bertzeak?

DOMINIXE: Xo, jaun erretora! Ez dezagun denbora galdu. Bakotxa bere tokian ezarriak ditut.

ERRETORA: Nun da Mikolasa? Haren beharra ere ba duzu?

DOMINIXE: Ez jauna, ez. Hura hartzen ahal duzu. Sukaldean dago.

ERRETORA: Tira ba. Ba noa ni ere lanera, denbora galdu gabe.

(Etxean sartzen da.)

VII. AGERRALDIA

Mayi, Markisa eta Dominixe. Mayi eta Xagu oihanetik helduko. Dominixe jarri-rik, irakurtzen ari.

MARKISA:

Klabelin...! Bizitzea nun maite zenuke?

MAYI:

Zurekin baldin bada... berdin litzaidake.

MARKISA:

Paris-en?

MAYI:

Zergatik ez?

MARKISA:

Hoin da hiri ederra!

Boulogne-ko oihanean ibiliko gera

Goizean, biok zaldiz, deneri agurka
Morroi beltz bat ondotik daramakigula...

MAYI:

Eta gero?

MARKISA:

Eguerdiz? Mahain eder batean
Eper, izoki, kabiar... zilar-platerean

MAYI:

Arratsaldean berriz?

MARKISA:

Erosketak egin

MAYI:

Gauaz?

MARKISA:

Afari eder bat, kandela-argiekin...

MAYI:

Ta gero?

MARKISA:

Teatrura, soineko ederretan
Zer bertze nahi litake zure ogoi urtetan?

MAYI:

Horrekin betea dut ametsa nerea!

MARKISA:

Ezkont gaitera lehenbaitlehen!

MAYI:

Lehenbaitlehen, maitea!!

MAYI: *(Osabaz ohartuz)* Hori! Zu hemen, osaba? Nere senargaia ezagutzen duzu, naski?

MARKISA: Egunon... osaba.

DOMINIXE: Nik ere... iloba erran behar diot, beraz *(Eskua elgarri emaiten).*

MAYI: Osaba-iloba gaiak elgarrekin bai zerate, uzten zaituztet bakarrik. Nik ba dut zer-egin franko. *(Markisari goxoki)* Eraztun hori beharko baitugu busti! Bazkaltzerat geldituko zera, osaba?

DOMINIXE: Ez... Begira nola nagoen... Baina bazkal aintzina, txanpaila-boteila bat ustuko dugu elgarrekin. Errana bai nizun, Mayi... etorriko zitzaigula, guri ere, eguna!

MARKISA: Bertsoak ere eginak ditut. Erranen daukitzut, Mayi?

MAYI: Sarri, sarri... neri bakarrik!

DOMINIXE: Gazte hoiien amodioa!

MARKISA: Hola behar ere, ez da hala Mayi? *(Eskuz igortzen dio muxu bat)*

MAYI: *(Etxeko atetik)* Agur... goizeko izarra!

MARKISA: Agur... uso xuri!

BEÑAT: (*Gorde-tokitik*) Aski, Mayi! Entzun duzu? Asia bai zait, neri ere, odola berotzen. (*Mayik-eskuz egiten dio ixiltzeko. Eta sartzen da.*)

VIII. AGERRALDIA

Dominixe eta Markisa

MARKISA: Unatua nauzu. Jarriko gera? Nun? Hemen-txet?

DOMINIXE: Bai, bai. Nik ere nahiago dut, xutik baino, jarririk. Zapatariak ez du xutik egoiteko usairik.

MARKISA: Zapataria! Nahi nuke jakin, gizonari nola bururatu lezaioken zapatari izatea!

DOMINIXE: Bururatu, bururatu... beharrak eraginda, jauna. Zortzi seme-alaba ginduzun etxean. Ogia jatekotan, irabazi egin behar. Denak ezin base-rirako izan. Panpilli-k Amerikatarat jo zuen. Ni berriz, osaba bat bai genuen Hazparnen-n zapatari, haren ganat igorri ninduten. Hura hiltzean, herriko zapata zaharrak bertze norbeitek antola beharko. Holaxet asi ninduzun lanean. Etxe

zahar bat alokatu genuen. Eta hantxe gaituzu, berrogoi urte hauetan etxe berean. Orain... ez dakit zer egin beharko dugun. Etxea salgai emana bai dute. Eta guk, erosteko sosik ez...! Andreak ba dakizu atzo zer erraiten zidan?

MARKISA: Zer?

DOMINIXE: Ahalgetzen bai naiz erraiten...

MARKISA: Ahalgetzen? Gu bezelakoak, apalak izaten dira. Gorago eta apalago. Mintza beldurrik gabe.

DOMINIXE: Galdatzen ba didazu...: «Dominixe -erraiten zidan atzo gure atsoak ogean- markisaren-gana joan behar zenuke. Hura laister familiakoa dugu ta, bihotz haundiko gizona omen da bera. Aberatsa berriz... zer esanik ez. Markis hoiek ez bai dute jakiten-ere beren diruarekin zer egin, beharba sosa izanen du nonbaiten ezarri nahi. Harek zerbeit aintzineratuko baligu, guk gero itzuliko genizkioke berriz, puliki puliki, hartutakoak oro. Saritzat, aski luke erraitea urtean zombat nahi luken eta kito. Harentzat kalterik ez eta guretzat laguntza.» Holaxe mintzatzen zitzaidan atzo gure atsoa. Emazteki hoieri zernahi bururatzen bai zaiote. Ni, ez nintzen sekulan

ausartuko zure ganajoaten baina, biak hemen elgar kausituz, zapataritza aipatu duzun puntutik, ongi edo gaizki egina, horra: erran beharrak ohartu gabe ateratu zaizkit agotik. Nere ausartzea barkatuko duzu...

MARKISA: Barkatu? Ez da barkatu beharrik. Zure konfiantza estimatzen dut. Baina... ondorengoak neurtu dituzute? Zer erranen luke Panpilli-k? Bere anaiari nik dirua aintzineratu? Hori ez luke Panpilli-k onartuko. Ez ninduke sekulan barkatuko ere. Zergatik ez diozu diru hori anaiari eskatzen, gizona? Edo... asarre zerate?

DOMINIXE: Asarre? Ez, ez. Anaiak, ba dakit maite nauela. Eta ahal balu, lagunduko nindukela ere bihotzetik. Baina...

MARKISA: Baina zer?

DOMINIXE: Anaiak ez du hola ibiltzeko dirurik, fauna.

MARKISA: Anaiak ez duela dirurik?

DOMINIXE: Hau ere ez dakit nola ateratu zaidan. Ixildu banintza, obe. Baiña... berez etorria da hola eta... mundu huntarik gaki den arima bezela duzu agotik ateratutako hitza: joan geroztik, itzultzerik ez.

MARKISA: Zer ari zera? Umoreak eragiten zaitu hola edo... bekaizkeriak?

DOMINIXE: Ez batek eta ez bertzeak, jauna. Anaiari zergatik ez diotan sosa eskatzen galdetu didazu, eta zer erantzun behar nizun nik?

MAYI: (*Atetik*) Barkatu! Eperrak errerik nahiago ala saltsan?

MARKISA: Utzi gaitzazu orai Mayi, kalakan ari bai gera.

BEÑAT: (*Gorde-tokitik*) Ustela! Ari zaizkik ari, galtzak erortzen!

DOMINIXE: (*Bere baitan*) Amua agoan duk. Iretsi zak orai!

MARKISA: Baina... Ameriketan ez zituzten hoiek ontasun izigarriak?

DOMINIXE: «Zituzten», ongi errana duzu...

MARKISA: Ez «dituzte» beraz?

DOMINIXE: Haundi-nahiak ez du gauz onik ekartzen, jauna. Eta hoiek «zituzten» ontasunak ez ziren egun batez eginak. Baina... xahutu bai, aguro. Orai ere, amak utzitako errotatxo bat saldu berria dute, odolezko lau zaldi hoién saritzat!

MARKISA: Arras zuritu eta leher-egiñak dagoz beraz?

DOMINIXE: Ez, ez! Hori ez! Baina zera! Anaiak ez luke gaurkoz diru-kezkarik ibili behar! Gutiagorekin

bizi gera gu! Etxea berea dute. Bizpairu baserri gelditzen zaizkie inguruan. Zer gehiago behar? Alaba bakarra dute. Eta pentsa: zurekin ezkondu ezkerro, ez dute hari sosa igortzen ibili beharrik izanen... Sekulan sosaz behartuko balira ere, orai trankil dire: hor baitzaizue zu...

MARKISA: Pentsa! Ederki, ederki... *(Zaldi-irrintzinak entzun bitez. Eta golpez agertu bedi, galopaka, Bukigan trapuzko zaldi-itxura, barnean gizona duela. Ostikoka heldu da.)*

DOMINIXE: Hori! Panpilli-n zaldia, hemen? Hau ez duk Bukingan? Jesus! Nun utzia dik horrek gaiñekoa?

GEAXINE: *(Oihuka)* Mikolasa!! Mayi!! Zatozte! Panpilli zalditik eroriaaaa!!!

DOMINIXE: Aitaren eta Semearen... Orai ere, gizon hori! *(Markisa ohartu gabe, ba doa gorde-tokiraino)* Entzun duk, Beñat? Oa gibeletik, Xagu-ikusi gabe! Oa laister! *(Bere baitan)* Ai ama! Zer da baina etxe hau! Etxe hau zer da? *(Ba doa oihanerat laisterka).*

IX. AGERRALDIA

Markisa bakarrik

MARKISA: *(Bere baitan):*

Dirurik ez dutela? Gezur...? Amets...? Egi?
Dirurik ez badute, zertan ari naiz ni?
Ongarri-usaina, berez, eztut gustokoa
Nik tratua nahi nuen, ez amodioa
Arrapa nahi ninduten, markis bat hartzeko?
Nik berriz ezkont nahi dirua ukaiteko?
Beraz... gure tratua botatuz gain-bera
Joan gaiten sosketarat... bertze nonbeitera!
Baina ixo! Hemen dire! Joka dezagula
Goxoki! Ahal badugu, galdu gabe itxura!

X. AGERRALDIA

*Geaxine, Panpilli, Beñat eta Markisa.
Gero Maiena eta Mayi. Panpilli argarioka,
oihanetik ekarki dute maingu, busti egin-
da. Geaxine ta Dominixek dakarte beso-*

*tik. Benat albotik heldu, golpatuari begi-
ra. Geaxinek begi bat beltz-beltz egina
ekarki.*

PANPILLI: Ai, ai! Ai, ai, ai!

GEAXINE: Zaude ixilik, gizona! Plazatik entzunen dituzte zure irrintzinak. Zangoa autsia bazenu, etziñake hola ibiliko. Behatu-iozu nere begiari! Zer zaizte zuek, gizonak?

PANPILLI: Ai, ai, Geaxine, Geatxinetxo! Ai, ai, ai!!
Dominixe!

DOMINIXE: Zer duk?

PANPILLI: Jaun erretora, nun zebilkik?

DOMINIXE: Hoino ez ago hortan mutikoa, ago trankil!

PANPILLI: Nere minari baino beldurrago zioat harren irriari.

BEÑAT: Jarri zazute nunbeiten, pulliki, pulliki...

DOMINIXE: Apatx! Ongi da hola gure haur ttikia?

PANPILLI: Ai, ai! Ai, ai, ai!

BEÑAT: Nola erori zera, Panpilli?

GEAXINE: *(Markisari)* Cé né rien! Dan la kuis il a fé!

PANPILLI: Nola gertatu zaidan? Atzo bezelaxe. Erreka zikin hortan. Bukingan zerri horrek bortxaz harat behar bai ninduen ereman. Heldu girela-

rik, erran diot salto egiteko-eta harek ezetz. Gero berriz nik ez egiteko, eta harek salto egin. Azkenean, ez arre ta ez so, panba!! ... biak errekarat erori. Zaldi ustela!

BEÑAT: Zango hori behar dugu miatu jauna, ia hautsia duzun. Igi zazu pittat...

PANPILLI: Ai, ai! Ai, ai, ai!

MAYI: (*Etxetik ateratuz, txanpaina eskuan*) Zer da? Zer gertatu?

BEÑAT: Fitxik ez. Fitxik ez da.

MAYI: Eta zuk, ama? Zer duzu begian?

GEAXINE: Aitaren presenta, hori ere.

MARKISA: (*Trufaz*) Nola egin duzu, anderea?

GEAXINE: Ez da luze erraiten: Lurrean ezarria nion pilota. Zaldia abiatu zaio eroa bezela eta, pilotari eman behar ziona... neronek begian hartu. Hau ezpaita sekulan izanen ez golfmana eta ez polo-mana!

MARKISA: (*Bere baitan*) Nun sartua naiz, Jainko maittea, eta sosik ez!

MAYI: Bon! Gazna txarrik ezpaita gertatu, jakin zazute: dena prest dugula pesta egiteko. Baina lehen-dabizi, aitatxo, arropa busti hoiek behar zenituzke aldatu.

PANPILLI: Ez, ez. Izerdiaren otza baino nahiago diñat nik errekaeren preskura.

MAIENA: *(Bidetik, elizatik heldu)* Zer da? Zer da hemen? Zer duzu, anai maitea? Etzaidazutela erran hila dela! Nun du min? Nun du golpea? *(Sartzen da)*

DOMINIXE: Ez da fitxik, emaztekoa! Zaude ixilik, ahal baduzu!

MAIENA: Ez dut sinesten! Ene anai maitea!

DOMINIXE: Erakutsi-ozu golpea, Panpilli, trankildu dedin! *(Panpillik, galtzak goitituz, erakusten dio golpea).*

MAIENA: Ez!! Ez nuen begiratu behar!!! Zergatik erakutsi didazute? Gizonaren iztarra ikusi dut! Gizonaren iztarra...!!

DOMINIXE: Zoaz hemendik, txepeliña!

MAIENA: Bai, ba noa elizarat berriz! *(Abiatzen da).*

MARKISA: Lagunduko diot...

GEAXINE: Nola? Zu orai joan? Ez! Orai, jaun andereak txikikeriak utzirik, mintza gaiten seriocki eta behar bezela: bertsotan.

PANPILLI: Begi horrekin, bertsotan?

GEAXINE:

Egun haundia da gaur! Mintza gaiten beraz

Gure erran guzieren bere indarra emanaz
Markis jaun senargaia: Zuk duzu gaur hitza
Gure alaba hemen duzu. So gaituzu. Mintza!

MARKISA:

Zer erran behar dut nik? Mayi mintza bedi!
Zuk nerekin ezkondu nahi zenuke, Mayi?

MAYI:

Nik bai!

MARKISA:

Ez erran baietz, erranez gezurra!
Maite nauzu... edo duzu... amaren beldurra?
Zertarako nahi nuke zure baiezkua?
Mayi, ez baninduzu zure gustokoa?

MAYI:

Hortan garen ezkeroz... mintza gaiten garbi.

MARKISA:

Erran beharrak erran beldur gabe, Mayi.

MAYI:

Nere maitea nor den denak ba dakite:
Nik Beñat maiteko dut, mundutik joan arte!

GEAXINE:

Lehen markisa erran duzu!!

MAYI:

Baina gezurretan!

GEAXINE:

Orai, Beñat diozu!!

MAYI:

Eta orai egitan!

GEAXINE:

Hori egia bada, zertan zabilzate?

MARKISA:

Nik ez diot Mayi-ri egin nahi kalte.

GEAXINE:

Zer duzu? Errespetu edo... aitzakia?

MARKISA:

Nahi bezala har zazu... andere maitia!
Zer uste zenuten ba? Zertaz ninduzuten?
Xatoan sortua naiz, odol urdingoa
Ongarri-usaina ez dut nere gustokoa!

GEAXINE:

Alde hemendik, zitala! Xagu nazkagarri!

MARKISA:

Agur ba, «Hazparne-ko Andere»... agurgarri!
(*Badoa*)

GEAXINE: (*Jarririk*)

Ura! ura behar dut!

DOMINIXE:

Urik ez, txanpaiña!

Egiak gezurrari hartu dio gaiña!
Nik dakit, jaun andreak, hemen gertatua:
Gaznaketarat jina zitzaigun xagua.
Eta nik gezurretan erran ohoinari:
Gazna aitua zela etxean aspaldi!
Hori entzunik, joan zaigu gure xagu ustela
Gazna-billa laisterka bertze nonbaitera!

GEAXINE:

Ura! Ura ekarri!!

DOMINIXE:

Urik ez da hemen!
Xanpaiña behar dugu! Eda-zu lehenbaitlehen!

BEÑAT:

Barkatu, jaun andreak. Orai nere txanda:
Markisa joana zaigu, bereak erranda;
Baina pentsa litake, xagua bezela
Ni ere gazna-billa heldua naizela.
Ta hargatik erran nahi dut: Mayi hartzekotan
Zuen diru guziak dagozela lotan.
Mayi, nik hartzen badut, bego nere andrea,
Ni bilakatu gabe haren emaztea.
Zuen diru guziak begoz zuendako.
Nik Mayi, sosik gabe nahi dut neretzako!

PANPILLI:

Hori duk mintzatzea!

DOMINIXE:

Hori duk, bai hori!

Goseak etzaitu hilgo, nere iloba Mayi:
Ni bizi izandu banaiz zapata zaharrekin,
Beñat-entzat izanen... naiko tripako min!
Nerekin topa egizu, koinata maitea!
Lehen alaba zenuen... eta orai... semea.

(Denek edaten)

XI. AGERRALDIA

Lehengoak eta Erretora. Gero Mikolasa.

ERRETORA: *(Etxe-atean agertuz)* Segi edaten, segi edaten, jaun andereak. Egon jarrita.

MAYI: Kopa bat nere eskutik, jaun Erretora!

ERRETORA: Gogotik. Begitarte alegera duzu, Mayi. Eta zuk ere, Beñat. Ez dut deus galdetu beharrik. Zuen begiak mintzo bai zaizkit eta nola! Baina... zer duzu zuk zangoan, Panpilli? Eta zuk Geaxi-

ne... zer duzu begian? Ez, ez, zaudete trankil. Hortaz ere eztut fitxik galdetuko. Ez dut irri eginen ere. Nun zare zu, Mikolasa? Zer zabilta horate-zokoan gordeta nigarrez? Ekarri zazu, Mayi. Zurekin etorriko baita. Denek entzun beharra duzute berri haundi bat (*Mayi joanen da Mikolasa-ren billa eta kusian harekin ateratuko*).

GEAXINE: Ixo denak! Eta beharriak erne! Berri haundi hori heldu baita!

MIKOLASA: (*Mayi-ren besotik nigarrez*) Zer egin diot nik Aita Sainduari... harek neri afrontu hau egingeko?

DOMINIXE: Hau ere asia zaigu...

PANPILLI: Zaude ixilik, Mikolasa!

GEAXINE: Orai ere, obekiago legoke hau sukaldean!

ERRETORA: Horra nola diren gauzak gertatu...

GEAXINE: Erran! Erran! Hemen gaituzu, begibelarri, zuri so.

ERRETORA: Atzo hartua dut Erroma-tik ageri eder hau (*Erakusten du*) Eta horra zer dion: «Jaun erreto-ra: Egun igortzen dizugu Hazparnetik eskatua ziguten Markisgoa. Galdea egina zuen andereak berak jakin-arazi zigun: Goitia familiaren baitan, guhaurek hautatzeko ohoragarriena. Aukera

hau zure eskuetan utzia dugu, jaun erretora, guk baino obekiago ezagutzen bai dituzu Goitia familiakoak. Aski zenuke, beraz, zuk hautatuko duzun izena Ageria-n ezartzea.» Eta nik...

GEAXINE: Bixtan da! Zer esanik ez...!

ERRETORA: Mikolasa-ren izena ezarri dut... Goitia baita Mikolasa ere. Eta ezpaitut ahantzia: Berrogei urte hauetan, euria dela, elurra dela, etxeko lanak asi baino lehen, goizeko bortzetan jeikirik, Mikolasa etorri izan zaidala ixil ixilik, sekulan sos bat hartu nahi izan gabe, astean bizpairu aldiz Hazparne-ko eliza garbitzerat. Nor behar zuen, beraz, Eliza-k ohoretu? Hartatik emana diot Mikolasa-ri markisgoa. Ez izanez: «La Markisa du Baiai»! Erkatzaz irabazia baitu bere ohorea...!

DOMINIXE: Gora zu, jaun Erretora! Eta gora gure Mikolasa!!

DENAK: (*Geaxine ezik*) Gora!!!

MAYI: (*Mikolasa besarkatuz*) Goresmenak zuri Andere Markisa!

MIKOLASA: Hori ez, Mayi, hori ez! Zuk ez, bederen! Etzaidazula holako afrunturik egin! Nik ez dizut zuri sekulan Mamasel erran nahi izan. Zuk ere

etzaidazula orai neri erran Markisa! Eta sukaldan segitzen ahalko dut, jaun erretora?

ERRETORA: Ze ba, emaztekoa, ze ba!

MIKOLASA: Hola bada...

GEAXINE: (*Xutituz, ikusleeri begira*):

Apaldu nahi ninduten, baina ez naute apaldu
«Hazparne-ko Anderea»-k burua gora du
Markisa egin badute nere sukaldari
Pentsa, jaun andereak, nor ote naizen ni!!

(Soiñulariak)